OIARTZUNGO UDALA

OIARTZUNGO UDALERRIKO BERDEGUNE, PARKE, LORATEGI ETA ZUHAIZTIEN GARBITASUNA, ZAINKETA ETA MANTENTZE-ZERBITZUAREN KONTRATUA

PROZEDURA IREKIA. ERREGULAZIO HARMONIZATUA

-BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO ZEHATZEN AGIRIA –

ESPEDIENTE KODEA: 2025KO160005

KARATULA

1.- KONTRATUAREN XEDEA:

Oiartzungo udalerriko berdegune, parke, lorategi eta zuhaiztien garbitasuna, zainketa eta mantentze-zerbitzua ematea.

Zerbitzua modu zuzenean emateko langile kopuru bat beharrezkoa denez eta kontratu honen koste nagusiena langileei dagokiena izanik, kontratu honen objektuaren barne diren sustapenerako helburu espezifikoak definitzera behartzen gaitu: gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna sustatzea, enpleguaren egonkortasuna eta kalitatea eta laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea.

CPV kodea:
77311000-3 (lorategiak eta parkeak mantentzeko zerbitzua).

2.- ESLEIPEN PROZEDURA:

Irekia, erregulazio harmonizatua. Lizitazio elektronikoa.

3.- ESPEDIENTEA IZAPIDETZEKO ERA:

Ohiko izapidetza.

4.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, PREZIOA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA:

4.1. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa honakoa da:
Urteko 231.603,52 eurokoa, gehi % 21eko BEZari dagozkion 48.636,74 euro, guztira urteko 280.240,26 eurokoa (BEZa barne).

SPKLren 100.2 artikuluak eskatutako banakapenari dagokionean, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua zehazteko lehenik zerbitzuaren lehen urteko aurrekontua kalkulatu da, modu honetan:

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

OIARTZUNGO UDALA

GASTU ZUZENAK	
Pertsonal gastuak	175.000,00
Ibilgailu eta makinaria funtzionamendu gastuak	20.107,08
ZEHARKAKO GASTUAK	
Pertsonala + instalazioak+ beste batzuk	13.710,38
Ibilgailuen aseguruak eta zergak	3.507,00
Exekuzioa	**212.324,46**
Gastu orokorrak (%3)	6.369,73
Etekin Industriala (%5)	10.616,22
Oinarria	**229.310,41**
BEZ-a (%21)	48.155,19
GUZTIRA	**277.465,60**

Horretarako, kontratuaren prezioa aztertzeko eta baloratzeko, kontratua betetzeak enpresa bati ekar diezaiokeen kostuaren estimazioa egin da. Horretarako, parte garrantzitsua da kontratua betetzeari adskribatutako langileen kostu laborala. Estatuko Lorezaintzaren Sektoreko Hitzarmen Kolektiboa hartu da erreferentziatzat, EAEn ez baitago hitzarmen espezifikorik, bai eta langileen itunak ere. Kontratuko pertsonalaren kostuak kalkulatzeko, %8ko absentismoa eta 4 hilabeteko oporraldietarako kostua estimatu da. Kontratua betetzeko kostuen artean kalkulatu dira, halaber, makinak, ibilgailuak, erremintak, erregaiak, lan-ekipoak, lore-hornidurak, etab. Gastu orokorrak eta mozkin industriala kalkulatzeko, %3ko gastu orokorra eta %5eko etekin industriala hartu dira oinarritzat.

Dena den, kontratuaren hasierako iraupena bi urtekoa izango dela kontuan hartuta, 2026ko martxotik 2028ko martxora, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua urteko 231.603,52 eurotan zehaztu da (BEZik gabe) -280.240,26 euro (BEZa barne)-, urteko KPIren % 2ko igoera aurreikusita:

	URTEAK	
	2026-2027	**2027-2028**
Zuzeneko gastuak eta zeharkako gastuak	212.324,46	216.570,95
Gastu orokorrak (%3) eta etekin industriala (%5)	16.985,95	17.325,68
Oinarria	**229.310,41**	**233.896,63**
BEZ-a (%21)	48.155,19	49.118,29
GUZTIRA	**277.465,60**	**283.014,92**

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

OIARTZUNGO
UDALA

Lizitatzaileek kopuru horretatik behera dagoen eskaintza egin dezakete, bestelako kopuru zehatz bat proposatuz.

Interesatuek egiten dituzten proposamenetan, ondorio guztietarako kontrata-prezioak ez ezik, kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten era guztietako zergak ere sartuta daudela ulertuko da. Hala ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergak banakatua agertu beharko du eskaintzetan, kontratuari bere arautegi arautzailearen arabera aplikagarri zaizkion tipoa eta zenbatekoa adieraziz.

4.2. Kontratuaren balio zenbatetsia honakoa da:
1.111.696,89 euro (BEZik gabe), honako kopuru hauetan banatuta:
- Hasierako iraupena (bi urte): 463.207,04 euro
- Aurreikusitako luzapenak (urtebeteko bi): 463.207,04 euro
- Kontratuaren aldaketak (% 20): 185.282,81 euro

5.- KONTRATUAREN IRAUPENA:
BI URTEKOA (2) kontratua sinatzen denetik, beste bi urtez luzagarria.

6.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA:
Ez da eskatzen.

7.- BEHIN BETIKO BERMEA:
Esleipenaren zenbatekoaren %5eko baliokidea, BEZik gabe.

8.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA:
30 egun natural, lizitazio honen iragarkia Europar Batasunaren Iragarkien Ofizinara bidaltzen den egunetik kontatzen hasita.

9.- ESPEDIENTEA IKUSGAI JARTZEA:
Oiartzungo Udaleko Kontratazio Profilean www.oiartzun.eus en.

10.- ALDAERAK:
Ez dira onartzen.

11.- SAILKAPENA ETA KAUDIMENA:

11.1. Enpresa sailkapena:
SPKLren 74. eta 77. artikuluen arabera, kontratu zerbitzu honetan kaudimena honako gutxieneko sailkapenaren bidez egiaztatu ahal izango da:

Taldea:	O
Azpitaldeak:	6
Kategoria:	2

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

(773/2015 Errege Dekretua, abuztuaren 28koa, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren zenbait manu aldatzen dituena)

Bestela, kaudimena jarraian zehaztutako kaudimen ekonomiko eta finantzarioko eta kaudimen teknikoko baldintzen arabera egiaztatu beharko da:

11.2.Kaudimena:

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa:
Kontratatu nahi den eremuan, **urteko negozio bolumena**k, azken hiru urteetan bolumen handieneko urteari dagokionak, gutxienez 416.886,33 eurokoa izan beharko du.

Lizitatzailearen edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena bere urteko kontuen bidez -onartuak eta Merkataritza Erregistroan jasoak- egiaztatuko da, eta bestela, inskribatuta egon behar dueneko Erregistro Ofizialean jasota dauden kontuen bitartez. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresari indibidualek beren urte negozioen bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute.

Kaudimen tekniko edo profesionala:
Azkeneko hiru urteetan kontratuaren xede diren izaera bereko edo antzeko zerbitzu nagusien zerrenda aurkeztu beharko da, adieraziz zenbatekoa, datak eta horiek norentzako egin diren, hauetan zehaztuz, erakunde publiko edo pribatuarentzako.

Kontratazio organoaren menpe dauden zerbitzuak eskatu ahal izango dio egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatzea organo eskudunak egin edo ontzat emandako ziurtagirien bitartez, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatua denean, honek egindako ziurtagiri baten bitartez edo, ziurtagiri horren faltan, enpresariak eginiko aitorpenaren bitartez; bere kasuan, ziurtagiri hauek zuzenean kontratazio organoari igorriko dizkio eskumena duen agintaritzak.

Gutxieneko baldintza izango da egikaritze handieneko urtean pilatutako urteko zenbatekoa kontratuaren xede diren zerbitzuen izaera bereko edo antzekoetan 194.546,95 eurokoa izatea. Enpresariak gauzatutako zerbitzuen eta kontratuaren xede diren zerbitzuen arteko loturarako irizpidetzat hartuko da sailkapen azpitalde berekoak izatea, kontratua kokatuta balego arautegian ezartzen direnetako batean, eta hala ez balitz, CPV sailkapenaren barnean dagozkien kodeetan lehenengo digituen artean dagoen berdintasuna.

Zerrendan adierazitako zerbitzuen artean hartzailea sektore publikoko erakunde bat izan denetan egindako egikaritza egokiaren ziurtagiriak zuzenean kontratazio organoari igorri ahal izango dizkio zerbitzuak kontratatu dituen erakundeak.

11.3. Kaudimen gehigarria: kontratuari atxikitu beharreko giza baliabideak:
Enpresa esleipendunak kontratuaren xedea betetzeko beharrezko langile guztiak jarri beharko ditu, Baldintza Teknikoen Agiriaren 18. klausulan ezarritakoa kontuan hartuta, eta

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

askatasun osoa izango du subrogatutako langileez gain behar dituen giza baliabide guztiak kontratatzeko.

Zehazki, lantaldearen partaide izango dira:
- Zaintza- eta koordinazio-lanak egiteko:
    - Zerbitzuaren arduraduna
- Zerbitzuen prestaziorako behar diren zuzeneko langileak, gutxienez eta lanaldi osoan:
    - Zerbitzuaren enkargatua
    - Lorezain ofiziala
    - 3 lorezain laguntzaile
- Gainera, kontratatutako zerbitzuen funtzionamendu egokirako behar diren beste langileak.

Edozein kasutan, kontratura atxikituko diren langileek aseguru egokia izango dute, eta hizkuntza gaitasunari dagokionean, zerbitzuaren arduradunak eta enkargatuak Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 gaitasun maila eduki beharko dute. Gaitasun hori agiri bidez egiaztatu ezean, dagokion froga egingo du Udaleko Hizkuntza Normalizaziorako sailak (froga horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

Horrez gain, zerbitzuaren arduradunak honako baldintzak bete beharko ditu:
- Kontratazio honetarako eskatzen diren hizkuntza baldintzak bete beharko ditu.
- Gutxienez 2 urteko esperientzia egiaztatuko du lizitazio hau baino lehenagoko bost urteetan zehar, kontratuaren xede diren lorezaintza lanen antzekoak egiten.
- Enpresa esleipendunak emandako eskumena izatea erabakiak hartzeko, kontratuko lanak betetzeko behar diren giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketan. Gainera, enpresa esleipendunak emandako eskumena izatea gorabehera teknikoak eta administratiboak ebazteko, egunero eskaini beharreko zerbitzuen kudeaketan.
- Udalak deitutako lan-bilera guztietara joateko moduan egotea.
- Erraz aurkitzeko moduan egotea beti, enpresak aukeratutako komunikazio-sistemaren bidez.
- Kontratatutako zerbitzuak egunez egun betetzeko, edozein lan zehatz kontrolatzea, erregistratzea, agintzea, koordinatzea, zuzentzea eta planifikatzea.
- Langileen lana kontrolatzea eta ebaluatzea.
- Lanak kalean bertatik bertara ikuskatzea, eta, beharrezkoa izanez gero, berehala hartzea gaizki eginikoak zuzentzeko neurriak.
- Lantaldeak eta zerbitzuak antolatzea, eta, beharrezkoa izanez gero, etengabe berrantolatzea.
- Zerbitzuak berrantolatzea gorabeherarik izanez gero (matxurak, istripuak, elurteak…).
- Udalari gorabehera guztien berri ematea unean bertan.
- Kontratuaren xede diren lanak koordinatzea udalarekin, dagozkion hartu-eman edo gestioen bitartez.
- Oro har, zerbitzuaren funtzionamendu egokirako eginkizun guztiak betetzea.

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

Enpresa esleipendunak pertsona bakarra izendatu dezake zerbitzuaren arduradun izateko, ezarritako baldintza guztiak betetzen baditu, edo zerbitzuaren bi arduradun izendatu ditzake, beti ere bien artean ezarritako baldintzak betetzen badituzte, hizkuntza gaitasunari eta eskatutako esperientziari dagokiona izan ezik, biek ala biek bete beharko baitituzte. Hala, esleipendunak zerbitzuaren arduradunarentzako ezarritako baldintzak banatu ahal izango ditu (hizkuntza gaitasunari eta eskatutako esperientziari dagokiona izan ezik), pertsona bakar batek ezarritako baldintza guztiak betetzen ez dituenean, edo zerbitzua hobeto emateko egokia dela uste duenean.

Edonola ere, zerbitzuaren arduradun funtzioan aritzeko ezarritako baldintza guztiak bete beharko dira, eta ez dira salbuetsiko bi pertsona izendatzeagatik.

Lizitatzaileek beren eskaintzetan argi azaldu beharko dute zerbitzuaren arduradun izateko proposatzen duten edo dituzten pertsonak.

Dena den, kontratistak bermatuko du sor daitezkeen ordezkapenetan ere, langile berriek titularren baldintzak beteko dituztela. Hasierako pertsonalean edozein aldaketa egiteko, Udalak oniritzia eman behar du.

Kontratuaren baldintza hau funtsezko betebeharra da eta, beraz, ez betetzeak zehapenak ezartzea ekar dezake edo kontratua amaitzea eragin dezake, SPKLren 211. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

12.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK:

12.1. IRIZPIDE AUTOMATIKOAK…….……60 PUNTU

A) <u>Eskaintza ekonomikoa (0-45 puntu)</u>

Lizitatzaileek eskainitako urteko prezioa baloratuko da, gehienez 45 punturekin. Eskaintzarik baxuena egiten duenari puntuazio maximoa emango zaio, eta ezarritako kopurua berdintzen duenari 0 puntu. Gainerako eskaintzen balorazioa ondoren zehazten den formula matematikoaren arabera egingo da:

$$\text{Puntuaketa} = \frac{P_b}{P_0} \times 45$$

Non:

P_o= Balioesteko eskaintza ekonomikoa
P_b= Eskaintzarik baxuena

Hasiera batean, neurriz kanpoko edo anormaltzat hartuko dira urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartutako Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 85. artikuluaren arabera halakotzat hartu beharrekoak, eta

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

Sektore Publikoko Kontatuen Legearen 149. artikuluak aurreikusten duena jarraitu beharko da.

B) Udalaren eskura urtero orduen poltsa jartzea (0-10 puntu)

Kontratuan aurreikusi ez diren beharretarako edo eguraldi gorabehera batzuengatik sor daitezkeen lan bereziei erantzuteko Udalaren eskura doako orduen poltsa jartzea baloratuko da, gehienez 10 punturekin, horrela banatuta:

- Ordu poltsarik eskaintzen ez denean: 0 puntu
- 75 orduko poltsa eskaintzen bada: 5 puntu
- 150 orduko poltsa eskaintzen bada: 10 puntu

C) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna (0-5 puntu)

Kontratuak irauten duen bitartean, kontratura atxikitako langileei urtero gutxienez 5 orduko formakuntza ematea baloratuko da, genero berdintasunaren inguruan. Bereziki, gizonak, maskulinitateak eta berdintasunaren inguruan.

Formakuntza emateko konpromisoa hartzen duen enpresari 5 puntu emango zaizkio, eta konpromiso hori hartzen ez duenari 0 puntu.

12.2. BALIO JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEAK…….....…….40 PUNTU

Kalitatea eta ondorioak hartuko dira kontuan, beti ere, lizitatzaileek proposatutako lanen ezaugarri teknikoei eta antolakuntzari, langileriari eta baliabide teknikoei buruz aurkeztutako memoria teknikotik ondorioztatutakoak, Baldintza Teknikoen Agirian zehaztutako edukiaren arabera.

Horretarako, puntuazioak hurrengo azpi-irizpideen arabera emango dira:

1. Plangintza eta antolaketa orokorra (0-15 puntu)

1.1. Zerbitzuaren deskribapen teknikoa (0-10 puntu)

Baldintza Teknikoen Agirian eskatzen diren lanak egiteko aurkeztutako proiektu funtzionalaren kalitate teknikoa.

1.2. Lan-plana (0-3 puntu)

Hilabeteko antolatuta, esleipendunak urtean zehar emango dituen jarduera eta zerbitzu guztiak.

1.3. Atxikitako lantaldea (0-2 puntu)

Ordutegiak, egutegiak eta taldearen antolamendua jasotzen dituzten giza baliabideen programazioa.

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

2. Baliabide materialak eta instalazio finkoak (0-8 puntu)

2.1. Zerbitzuari atxikitako makineriaren eta ekipoen prestazioak: bitarteko osagarrien zerrenda (0-6 puntu)

Zerbitzua gauzatzeko erabiliko diren instalazioa eta ekipoak, honako hauek adierazita: ezaugarri teknikoak, marka, modeloa, potentzia eta edukiera, makineriaren argazkia, eta horiek zerbitzua emateko justifikazioa eta egokitasuna.

2.2. Erreserbako materiala (0-2 puntu)

Enpresak dituen makineria eta ekipoak, nahiz eta zerbitzuari atxikita ez egon, urtean zehar premia larriren bat izanez gero edo unean uneko premien bat izanez gero haren eskura egon daitezkeenak.

3. Giza baliabideak (0-8 puntu)

3.1. Langileak (0-5 puntu)

Zerbitzua emateko proposatutako zuzeneko eta zeharkako lantaldearen organigrama.

3.2. Zerbitzuaren arduraduna eta enkargatua (0-2 puntu)

Zerbitzuaren arduradun eta enkargatu izateko izendatutako pertsonen esperientzia baloratuko da, Baldintza Teknikoen Agirian eskatutako gutxienekoa gainditzen duenean.

3.3. Langileei buruzko prestakuntza-plana (0-1 puntu)

Enpresa lizitatzaileko langileei zuzendutako laneko segurtasun eta osasunaren eta ingurumenaren arloko prestakuntza-planak baloratuko dira.

4. Lana erregistratzeko eta kontrolatzeko sistema (0-4 puntu)

4.1. Sistema eta aplikazio informatikoa (0-4 puntu)

Proposatutako lana erregistratzeko eta kontrolatzeko sistema baloratuko da, baita eremu bakoitzean egindako lanen jarraipena, erregistroa eta kontrola informatizatzea ere, Baldintza Teknikoen Agirian oinarrituta. Zerbitzuaren jarraipena, erregistroa eta kontrola egiteko, udalarekin harremanetarako komunikazio-plana eta inbentarioa eguneratzeko sistema informatikoak erabiltzea baloratuko da, bereziki Informazio Geografikoko Sistemak.

5. Ingurumen-irizpideak (0-5 puntu)

5.1. Makina eta ibilgailuen egokitasuna eta errespetua ingurumenarekiko (0-2 puntu)

Zerbitzuari atxikitako makinen eta ibilgailuen ezaugarriak baloratuko dira, energia-efizientziaren eta erabilitako energia-iturriaren ikuspegitik.

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

5.2. Hondakinak Kudeatzeko Plana (0-1 puntu)

Hondakinak Kudeatzeko Plana baloratuko da, eta bertan, siega-hondakinak, mozketak eta inausketak, bilgarriak eta garbiketa-hondakinak jaso eta tratatzea jaso beharko da.

5.3. Espezie inbaditzaileak (0-1 puntu)

Udalerriko berdeguneetan espezie inbaditzaileak kontrolatzeko neurriak baloratuko dira (prebentiboak eta selektiboak, eta ingurumena errespetatzen dutenak).

5.4. Ongarri eta fitosanitarioen ezaugarriak (0-1 puntu)

Ongarrien kantitatea, mota kalitatea eta maiztasuna baloratuko dira, bai eta eskuragarri dauden produktu fitosanitarioena ere, ingurumenaren ikuspegitik.

Memoria teknikoak ez ditu DIN A4 formatuko 100 orrialde baino gehiago izango (indizeak, planoak, grafikoak, ibilgailuen eta makinen espezifikazioak eta abar barne). Gehieneko luzera hori gainditzen duten proposamenak ez dira prozeduratik kanpo gelditukо; edukia baloratuko da, gehienez ere onartzen den orri kopururaino.

Balorazio orokorrerako onartuak izateko beharrezkoa izango da balio judizioen bitartez baloratzekoak diren eta automatikoak ez diren irizpideetan enpresa lizitatzaileek puntuazioaren % 50eko gutxieneko muga lortzea. Hala, ez dira kontuan hartuko eta ezingo dute prozedura jarraitu balio judizioen araberako irizpideen balorazioan 20 puntutara iristen ez diren eskaintzak.

13.- SUBROGAZIOA:
Bai

14.- EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK:

- Bete beharreko gutxieneko lan-baldintzei buruzko klausula soziala.
- Bete beharreko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagozkionak.
- Bete beharreko hizkuntza baldintzak.
- Bete beharreko ingurumen irizpideak.

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

OIARTZUNGO
UDALA

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

1.- Agiri honetan oinarritzen den kontratuaren xedea karatularen 1. atalean zehaztutakoa da, Baldintza Teknikoen Agirian, baldintza agiri honetan eta kontratuaren esleipenduna gertatzen den eskaintzan zehaztutako baldintzetan, zeinak kontratuzko izaera izango duten.

2.- Kontratuaren xedeak lote bakarra osatzen du.

3.- Kontratuaren gaiaren kodea, CPV nomenklaturaren arabera, karatularen 1. atalean zehaztutakoa da.

4.- Ez da eskaintza alternatiboen proposamenik onartuko.

2. KONTRATUAREN IRAUPENA

1.- Kontratuaren iraupena karatularen 5. atalean zehaztutakoa da.

2.- Luzapenak kontratazio organoak erabakiko ditu eta kontratistak nahitaez bete beharko ditu, betiere kontratuaren iraupen epea bukatu baino bi hilabete lehenagotik adierazten badira. Nolanahi ere, luzapenak berariaz ebatzi behar dira.

3.- Edonola ere, kontratuaren epea betetzean ez bada formalizatu zerbitzua ematen jarraitzea bermatuko duen kontratu berria, esleipen prozeduran izandako eta kontratazio organoarentzat aurreikusi ezinezkoak diren gorabeheren ondorioz, eta interes publikoko arrazoiak egonez gero prestazioa ez eteteko, kontratua luzatu ahal izango da, kontratu berria exekutatzen hasi arte, eta gehienez ere bederatzi hilabetez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe; baldin eta kontratu berriaren lizitazio iragarkia kontratu honen amaiera data baino gutxienez hiru hilabete lehenago argitaratu bada.

3. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

1.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua eta kontratuaren balio zenbatetsia karatularen 4. atalean zehaztutakoak dira.

2.- Lizitatzaileek ezarritako kopurua hobetu ahal izango dituzte, aurrekontutik beherako eskaintzak eginez.

3.- Enpresa interesdunek egiten dituzten proposamenetan sartuko dira, ondorio guztietarako, kontrata prezioak ez ezik, baita kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten era guztietako zergak ere. Hala ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergak banakatua agertu beharko du eskaintzetan, kontratuari bere arautegi arautzailearen arabera aplikagarri

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

zaizkion tipoa eta zenbatekoa adieraziz.

4. FINANTZAKETA

SPKLren 117.2 artikuluaren eta 3.2 Xedapen Gehigarriaren baitan, kontratuaren exekuzioari -nahiz eta tramitazio administratiboa aurretik egin- hurrengo ekitaldian emango zaio hasiera. Horregatik, eta espedientea bideratzen duen arloak horrela eskatuta, kontratuaren esleipenaren balioa, kontratua gauzatu behar den ekitaldiaren aurrekontuan egoki eta nahikoa den kreditu esleitzearen baldintzapean geratzen da.

5. ORDAINTZEKO MODUA

1.- Kontratuaren prezioaren ordainketa benetan emandako zerbitzuei dagokien hileroko ordainketa bidez egingo da. Aurretik enpresa esleipendunak dagokion faktura aurkeztu beharko du, eta faktura hori zerbitzuaren udal teknikari arduradunak gainbegiratu eta egiaztatuko du, eta hala badagokio, organo eskudunak onartuko du. Halaber, fakturak indarrean dauden xedapenetan ezarritako izapideak beteta eduki beharko ditu.

Faktura onartu eta gero, SPKLren 198. artikuluan legez aurreikusitako epeetan ordainduko da.

2.- Abenduaren 27ko 25/2013 Legeak xedatzen duenaren arabera, faktura elektronikoa ematera derrigortuta dauden entitateek fakturak formatu elektronikoan Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez bidali beharko dituzte, helbide honetara: https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua, Oiartzungo Udala atxikitua baitago, horretarako Udalaren DIR3 kodeak erabiliz:

1. Kontabilitate Bulegoa: L01200631
2. Organo Kudeatzailea: L01200631
3. Unitate Izapidetzailea: L01200631

3.- Era berean, fakturarekin batera, langileen nominak eta gizarte-segurantza ordaindu direlako egiaztagiriak ere aurkeztu beharko ditu (kasuan-kasuko bankuak zigilatutako nominak, TC1 eta TC2 orriak eta kontratatutako pertsonen zerrenda sexu arabera bereizita). Era berean, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian agertzeagatiko ziurtagiri negatiboa (Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 42. artikuluan aipatzen den ziurtagiria). Halaber, kontratazio-organoak agiri osagarriak eskatu ahal izango ditu, enpresa esleipendunak betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko.

6. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honen xede den prestazioaren ezaugarriak kontuan hartuta, ez da prezioaren berrikuspenik egingo.

7. BERMEAK

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

a) Behin-behineko bermea: ez da behin-behineko bermerik eskatzen.

b) Behin-betiko bermea: kontratu honen lizitazioan proposamenik onena aurkezten duen eskaintzaileak, hartuko dituen konpromisoak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea jarri beharko du, esleipenaren zenbatekoaren %5eko baliokidea, BEZik gabe.

Berme hori jartzeko epea 10 egun balioduneko izango da, agiri honetako 13. klausulan aipatzen den errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Bermea jartzeko modua, berriz, SPKLren 108. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektronikoak erabili daitezke. Eskaintzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik baldintza hori betetzen ez bada, Udalak ez du esleipena bere alde egingo.

Berme epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebehar guztiak beterik badaude. Itzulketa hori SPKLren 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

OIARTZUNGO
UDALA

II. KONTRATATZEKO PROZEDURA

8. ESLEIPENAREN PROZEDURA

1.- Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da, eta ohiko izapidetzea jarraituz.

2.- Kontratuaren esleipena egiterakoan, karatularen 12. atalean zehaztutako irizpideak hartuko dira oinarritzat eskaintzak balioesteko, kalitate-prezio erlazio onenean oinarrituta.

3.- Esleipenduna suertatzen den lizitatzaileak egindako eskaintza, bere osotasunean, kontratuaren edukira sartuko da, eta agiri honekiko hobekuntza suposatzen duen guztia, nahitaez bete beharrekoa izango da.

9. LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA

Lizitazio honen iragarkia Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta Oiartzungo Udaleko Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da (www.oiartzun.eus), Euskadiko Kontratazio Plataforman dagoena.

10. KONTRATATZEKO GAITASUNA

1.- Lizitazio honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridiko guztiek, baldin eta beren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala frogatzen badituzte eta SPKLren 71. artikuluan zehaztutako kontratatzeko debekuen kasuren baten barnean ez badaude.

Pertsona fisiko edo juridikoek bere kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariek kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordez bertako kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak, arestian aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkie.

2.- Zehazki, enpresek ezingo dute Nazio Batuen Erakundearen 183. batzar orokorrak onartu eta aldarrikatutako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean ezarritakoa urratzen duen eragiketarik egina izan edo egin, ez eta horiek arautzen dituzten printzipio orokorrak ere: Giza Eskubideak Babesteko eta Bermatzeko Sistema Unibertsala, Giza Eskubideak Babesteko eta Bermatzeko Eskualde Sistemak eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa.

3.- Enpresariek, halaber, kontratu hau burutzeko kasuan kasu eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

4.- Enpresari batzuk kontratazioan batera parte hartzeko interesatuta daudenean, aldi baterako enpresa elkartea sortu ahal izango dute horretarako. Esleipena bere alde egiten den arte ez da beharrezkoa izango elkarte hori eskritura publikoaren bidez formalizatzea. Kasu

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

horretan, enpresariak modu solidarioan erantzungo dute Administrazioaren aurrean, eta elkartearen ordezkari edo apoderatu ahaldun bakarra izendatu beharko dute, eta horrek kontratutik eratortzen diren eskubideak gauzatzeko eta obligazioak betetzeko adinako ahalmenak izango ditu, kontratua amaitu arte.

5.- Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkez dezake. Gainera, proposamen bat bakarka aurkeztu duen lizitatzaileak ezingo du beste batzuekin aldi baterako elkartuta proposamenik aurkeztu edo aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan azaldu. Lizitatzaileren batek baldintza hauek betetzen ez baditu, ez dira onartuko hark sinatutako proposamen guztiak.

6.- Proposamena aurkeztearekin lizitatzaileak bete-betean eta oso-osorik onartzen ditu baldintza agiri honetako eta gainontzeko kontratu-dokumentuetako klausula guztiak, salbuespenik gabe, eta erantzukizunez aitortzen du zuzenak direla aurkeztu dituen datu guztiak eta betetzen dituela zerbitzua kontratatzeko ezarrita dauden betekizun guzti-guztiak.

7.- SAILKAPENA EDO KAUDIMENA:

Lizitatzaileek karatularen 11. atalean zehazten den sailkapena eduki beharko dute, edo kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta tekniko edo profesionaleko baldintzak bete beharko dituzte.

Udalak ofizioz egingo ditu, betiere ahal den neurrian, aipatu baldintzak egiaztatzeko jarduketak, eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzailearekiko. Bestela, beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko eskatuko zaio, baldintza agiri honen 13.2 klausulan ezartzen den unean eta moduan.

Horrez gain, enpresak nahitaez kontratuari atxikitu beharko dizkio karatularen 11.3 atalean zehaztutako gutxieneko giza baliabideak, bertan ezarritako baldintzak bete beharko dituztenak. Helburu horrekin, lizitatzaileek zerbitzua emateko kontratura atxikiko dituzten giza baliabideen konpromisoa hartu beharko dute, agiri honen **I. Eranskinean** jasotako ereduari jarraiki, SPKLren 140. artikuluan aurreikusten den adierazpenarekin batera.

Eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak konpromisoan jasotako alderdiak egiaztatuko ditu, baldintza agiri honen 13.2 klausulan ezartzen den unean eta moduan.

11. ESKAINTZAK AURKEZTEA

1.- Kontratazio honen espedientea, eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa, Oiartzungo Udaleko Idazkaritza Sailean (Done Eztebe Plaza 1) aztertu ahal izango da, bulego ordutegian 8:00tatik 14:00ak arte egun baliodunetan, lizitazioaren iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidali eta Kontratatzailearen Profilean argitaratzen denetik, proposamenak aurkezteko epea amaitu arte. Orobat, agirietara eta gainerako dokumentu osagarrietara jo daiteke profilaren bidez, www.oiartzun.eus helbidean.

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

OIARTZUNGO UDALA

Epea: lizitatzaileek beraien eskaintzak lizitazio iragarkia **Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidaltzen den egunetik** kontatzen hasita **HOGEITA HAMAR (30) EGUN NATURALEKO epean aurkeztu beharko dituzte.** Noiz bidali den zehaztuko da Udalaren Kontratatzailearen Profilean.

2.- Proposamenak www.contratación.euskadi.eus lizitazio elektronikorako plataformaren bitartez aurkeztuko dira.

3.- Dokumentazioa nahiz jakinarazpenak eta komunikazioak bidaltzeko, jarraitu egin beharko zaio baldintza agiri honetako **V. Eranskinean** jasotakoari.

4.- Dokumentuak/edukiak izendatzeko unean kontuan hartuko dira klausula honetan adierazitako argibideak, bertan adierazten baita A, B eta C artxibo elektronikotan jaso beharreko dokumentu-edukia.

5.- Eskaintzak isil-gordekoak izango dira. Horregatik, behar adina neurri hartuko da lizitazioa jendaurrean egin arte eskaintzak sekretuak izatea ziurtatzeko.

11. BIS. PROPOSAMENEN EDUKIA

1.- Proposamenak jarraian adierazten diren **HIRU artxibo elektronikotan (A, B eta C) aurkeztuko dituzte** lizitatzaileek edo lizitatzaileen ordezkari diharduten pertsonek.

2.- **"A" ARTXIBO ELEKTRONIKOAk "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA"** titulua izango du, eta honako dokumentu hauek jasoko dira bertan:

- **Erantzukizunpeko adierazpena, Kontrataziorako Agiri Europar Bakarra (DEUC) ereduaren arabera.**

  DEUCen galdetegi normalizatua elektronikoki betetzeko eskuragarri dago honako web helbide honetan: https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter?lang=es

  Era berean, lizitatzaileek DEUC dokumentua bete ahal izateko, Oiartzungo Udaleko Kontratatzailearen Profilean erabilgarri dago XML formatua inportatzeko.

  Lizitatzaileek II, III, IV. eta VI. atala bakarrik bete behar dituzte. Ondorio horietarako, Estatuko Ondare Zuzendaritza Nagusiaren 2016ko apirilaren 6ko Ebazpenean jasotako orientabideak jarraitu behar dituzte, haren bidez argitaratu baita Kontratazio publikorako Zuzentarau berrian (2016ko apirilaren 8ko EAOn argitaratua) aurreikusitako Kontrataziorako Agiri Europar Bakarraren erabilerari buruzko Kontratazio Administratiboaren Kontsultarako Batzordearen Gomendioa.

  Lizitatzaileek ez dute beren azpikontratista izan daitezkeenak baztertzeko arrazoiei buruzko informazioa emateko obligaziorik.

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

Enpresa lizitatzaileak eskatutako dokumentuak dituela eta baliozkoak direla egiaztatu beharko du esleipendun gisa proposatuz gero edo horretarako eskaera eginez gero (prozeduraren edozein unetan haren garapen egokia bermatzeko beharrezkoa denean).

** Hainbat enpresa aldi baterako enpresa elkarte gisa aurkezten badira lizitazio honetara, enpresari horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, eta kontrataziorako agiri europar bakarreko galdetegian kasu horietarako eskatutako informazioa emango da bertan.*

Aurreko paragrafoak aipagai duen adierazpen horren edo horien osagarri gisa, parte hartu behar duten enpresariek aldi baterako enpresa elkartea SPKLren 69. artikuluaren 3. atalean eskatutakoaren arabera eta kontratua suntsitu arteko gutxienezko iraupenaz osatzeko konpromisoa aurkeztuko da.

Konpromiso hori hartzeko idazkia elkartea eratzen duten enpresa guztiek sinatu beharko dute, eta honako hauek adierazi beharko ditu: aldi baterako enpresa elkarte bakoitza eratuko dutenen izenak eta inguruabarrak, elkarteko kide bakoitzaren partaidetza eta kontratuaren esleipendun gertatuz gero aldi baterako enpresa elkartea formalki eratzeko konpromisoa.

*** Atzerriko enpresek, SPKLren 67. eta 68. artikuluek aurreikusitako moduan egiaztatu beharko dute beren gaitasuna.*

Erantzukizunpeko adierazpenaz gainera, atzerriko enpresek, kontratua Espainian gauzatu behar bada, zuzenean edo zeharka, kontratutik etor litezkeen gorabehera guztietarako edozein eratako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren pean geratzen direla adierazten duen agiria aurkeztuko dute, eta uko egingo diote, hala behar badu, legokiekeen atzerriko jurisdikzio foruari.

Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak, edozein unetan, dokumentu bidezko justifikazioa eskatu ahal izango dute, lizitatzaileek, erantzukizunpeko adierazpen bitartez, betetzen dituztela adierazitako baldintzei buruz. Lizitatzaileak behar besteko epea izango du dokumentazio eskatua aurkezteko, baina ezingo da 10 egun baliodunetik gorakoa izan, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Errekerimendua ez bada behar bezala aurkezten aipatu epean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza eta, horrenbestez, prozeduratik kanpo geratuko da.

- **Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala errespetatzearen inguruko adierazpena,** agiri honen **I. Eranskineko** ereduaren arabera.

- **Kontratuari atxikitu beharreko giza baliabideen konpromisoa**, agiri honen **II. Eranskineko** ereduaren arabera.

- **Helbide elektroniko gaitu bat**, kontratazio-prozedura honen ondoriozko jakinarazpen

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

eta komunikazio elektronikoetarako.

3.- **“B” ARTXIBO ELEKTRONIKOAk “BALIO JUDIZIOEN BIDEZ BALORATZEKO DOKUMENTAZIOA”** titulua izango du, eta honako dokumentu hauek jasoko dira bertan:

- **Memoria teknikoa**, karatularen 12.2 atalean zehaztutako atalak jasoko dituena.

  Memoria teknikoak gehienez ere DIN A4 formatuko 100 orrialde izango ditu (indizeak, planoak, grafikoak, ibilgailuen eta makinen espezifikazioak eta abar barne). Gehieneko luzera hori gainditzen duten proposamenak ez dira prozeduratik kanpo gelditukо; edukia baloratuko da, gehienez ere onartzen den orri kopururaino.

  Balorazio orokorrerako onartuak izateko beharrezkoa izango da balio judizioen bitartez baloratzekoak diren eta automatikoak ez diren irizpideetan enpresa lizitatzaileek puntuazioaren % 50eko gutxieneko muga lortzea. Hala, ez dira kontuan hartuko eta ezingo dute prozedura jarraitu balio judizioen araberako irizpideen balorazioan 20 puntutara iristen ez diren eskaintzak.

** Artxibo elektroniko honetan ezingo da agertu beste gutun-azalean (automatikoki baloratzeko dokumentazioari dagokiona) joan beharko lukeen daturik, ondorioa lizitaziotik kanpo gelditzea izango da eta ez da irekiko “C” artxibo elektronikoa.*

4.- **“C” ARTXIBO ELEKTRONIKOAk “AUTOMATIKOKI BALORATZEKO DOKUMENTAZIOA”** titulua izango du, eta honako dokumentu hauek jasoko dira bertan:

- **Proposamena**, baldintza agiri honen **III. Eranskinean** jasotako ereduaren arabera, behar bezala beteta.

**Lizitatzaileek, euren eskaintzetan pertsonaleko gastuei dagokienean, ez badute kontuan hartzen aplikagarria den lan hitzarmena, baztertuak izan daitezke arduragabeko beherapenean daudelako, zerbitzuaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzen ez dutelako.*

***Proposamenen bat ez badator bat aztertzen eta onartzen den dokumentazioarekin, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, nabarmen ezberdina bada ereduaren aldean, ageriko akats bat badu zenbatekoari dagokionez edo bideraezin bihurtzen duen akats edo ahulguneren bat badu aurkezten duen lizitatzailearen esanetan, kontratazio mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu baten bidez. Ereduko hitz batzuk aldatzea edo ez jartzea, ordea, ez da izango nahikoa proposamenak baztertzeko, haien zentzua aldatzen ez bada betiere.*

**** Ez da onartuko ereduaren arabera idatzi ez den proposamena ekonomikorik, edo eskaintza kontuan hartzeko kontratazio-mahaiak funtsezkotzat jotzen duena argi jakitea galarazten duen omisiorik, akatsik edo ezabaketarik daukanik.*

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

***** Prezioen eskaintzaren banakatzean antzeman daitezkeen akats aritmetikoak konpontzeko, oinarrizko prezioaren eta BEZ kopuru aplikagarriaren zifrak hartuko dira baliozkotzat eta ofizioz egingo dira guztizko prezioa lortzeko dagozkion kalkuluak.*

****** Artxibo honetan, inola ere ez da sartuko memoria teknikoa edo balio judizioen araberako irizpideen bidez baloratzekoa den beste edozein datu, "B" artxibo elektronikoan sartu behar dira eta. Datu horietako edozein sartuz gero "C" artxibo elektronikoan, ez dira baloratuko agiriok; automatikoki baloratu daitezkeen irizpideen puntuak bakarrik emango zaizkio.*

12. KONTRATAZIO MAHAIA ETA PROPOSAMENEN IREKIERA

1.- Kontratazio organoak Oiartzungo Udalaren kontratazio mahai iraunkorraren laguntza izango du. Halaber, mahaiak hala eskatuz gero, Udaleko edozein teknikari bertaratu ahal izango da aholkularitza lanak egiteko.

2.- Horrela, bada, kontratazio mahaiak Oiartzungo Udaleko bulegoetan (Done Eztebe plaza 1) irekiko ditu "A" artxibo elektronikoak, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetan.

Bai hasierako deialdi hori bai gerta litezkeen aldaketak kontratugilearen profilean argitaratuko dira (www.oiartzun.eus). Dena dela, jakinarazteko beste moduren bat ere jo liteke egokitzat.

Egintza horretan, kontratazio mahaiak kalifikatu egingo ditu aldez aurretiko baldintzak bete izana egiaztatzen duten dokumentuak eta lizitatzaileen ardurapeko adierazpenak, Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarrita dauden baldintzak betetzen dituzten adieraziz.

Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak hala eskatuta, lizitatzaileek ardurapeko adierazpena zuzendu beharko dute, baldin eta ez bada aurkeztu edo aurkeztu dena ez badago behar bezala beteta. Halako kasuetan, eragindako lizitatzaileari edo lizitatzaileei 3 eguneko epea emango zaie, zuzentzeko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Ez bada epe horretan eskatutakoa zuzentzen, kontratazio organoak edo mahaiak ulertuko du lizitatzaileak atzera egin duela bere eskaintzan.

3.- Egintza berean kontratazio mahaiak onartutzat emandako eskaintzen "B" artxibo elektronikoak irekiko ditu, hau da, balio judizioen bidez baloratzeko dokumentuak, eta dagokion teknikari arduradunari bidaliko dizkio, balorazioa egin dezan.

4.- Kontratazio Organoak garaiz argitaratuko du kontratatzailearen profilean, www.oiartzun.eus helbidean, noiz izango den "C" artxibo elektronikoak irekitzeko egintza, behin "B" artxibo elektronikoan jasotako dokumentuak baloratu ondoren.

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

Egintza horretan adieraziko du kontratazio mahaiak zein proposamen onartu diren, zein baztertu diren eta zergatik. Era berean, jakinaraziko du nola baloratu den balio judizioen araberako irizpideen bidez baloratzeko dokumentazioa; eta, azkenik, onartutako eskaintzen "C" artxibo elektronikoak irekiko ditu, hau da, irizpide automatikoen bidez baloratzeko dokumentuak.

Baldintza agirietan ezarritako eskakizunak eta baldintzak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertu ondoren, gainerako eskaintzak ebaluatu eta sailkatuko ditu. Ustez nabarmenki baxuegia den eskaintzarik identifikatzen bada, SPKLren 149. artikuluak arautzen duen prozedurari jarraituko dio.

5.- Bukatzeko, kontratua esleitzeko proposamena aurkeztuko dio mahaiak kontratazio organoari, puntuaziorik onena lortzen duen lizitatzailearen alde.

6.- Edonola ere, kontratazio mahaiak edozein unetan eskatu ahal izango ditu enpresek aurkeztutako dokumentazioa aztertzeko edo eskaintzak ebaluatzeko beharrezkoak direla iritzitako txosten teknikoak eta juridikoak.

13. KONTRATUAREN ESLEIPENA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA

1.- **Eskaintzen sailkapena eta esleipen proposamena.**

Eskaintzak baloratutakoan, kontratazio mahaiak kontratazio organoari bidaliko dio, aktarekin batera, dagokion esleipen proposamena. Hartan beheranzko hurrenkeran antolatuak agertuko dira eskaintzak, esleipen irizpideak aplikatuta haietako bakoitzari emandako puntuazioa barne, eta kalitate-prezioa erlazio onena duen eskaintza bereizita.

2.- **Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak aurretiazko baldintzak betetzen dituela arrazoitzen duen dokumentazioaren aurkezpena.**

Esleipen proposamena erabaki ondoren, errekerimendua egingo zaio SPKLren 145. artikuluan ezarritakoaren arabera eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari, zeina lehena izango den sailkapen hurrenkeran, 10 egun balioduneko epean, errekerimendua jaso ondorengo egunetik kontatuta, ondorengo dokumentazioa aurkez dezan:

a) Lizitatzailearen nortasuna egiaztatzeko dokumentuak:

- Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, nortasuna Osaera, edo hala badagokio, aldaketa eskritura bidez egiaztatuko da, baldintza hori eskatzen den kasuetan. Bestela, osaera dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza aurkeztu beharko du jarduera arautzen duten arauak jasota, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatua, hala behar izanez gero. Pertsona juridikoak bakarrik izan daitezke esleipendun beren estatutuen edo sortze arauen arabera dagozkien helburuen eta jarduera esparruaren barneko prestazioak jasotzen dituzten kontratuak direnean, eta kontu horrek egiaztatuta egon behar du aurkeztutako dokumentazioan.

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

- Lizitatzailea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala edo baliokide den dokumentuaren bitartez.

b) Eskaintzaren sinatzailearen ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa (pertsona horrek beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten duenean).

c) Zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen dituela egiaztatzen duten justifikazio dokumentuak.

d) Ekonomia jardueren gaineko zerga: ekitaldi honi dagokion alta, edo azken ordainagiria, aipatutako zergaren matrikulan baja eman ez izanari buruzko ardurapeko adierazpenarekin batera, eta, hala badagokio, salbuetsita izanaren gaineko ardurapeko adierazpena.

e) Eskaintzak aurkezteko fasean egindako adierazpenaren arabera, Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioak edo Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak emandako sailkapen ziurtagiria, zerbitzu kontratista gisa inskribatuta dagoela egiaztatzen duena, karatularen 11. atalean zehaztutako sailkapenarekin. Edo, bestela, kontratatzeko daukan kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzeko dokumentazioa, karatularen 11. atalean zehaztutakoaren arabera.

f) Kontratua betetzeko giza baliabideak atxikitzeko hartu duen konpromisoaren baitan (SPKLren 76.2 artikuluaren arabera), horiek badituela eta eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko dokumentuak. Euskararen gaitasuna agiri bidez egiaztatu ezean, dagokion froga egingo du Udaleko Hizkuntz Normalizaziorako sailak.

g) Lizitatzaileak ardurapeko adierazpenean kaudimena kanpoko baliabideen bitartez osatuko duela adierazi duen kasuan, SPKLren 75.2 artikuluan jasotzen den konpromisoa.

h) Behin betiko bermea eratu denaren egiaztapena.

Aurretik xedatutakoa xedatuta ere, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria aurkeztuz gero, enpresa lizitatzailea salbuetsita geldituko da, hartan jasotakoaren arabera eta aurkakoa frogatu ezean, erregistroan jasotako zirkunstantziei buruzko frogagiriak aurkeztetik.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko inskripzioan frogatu beharreko baldintzetako bat jasota agertzen ez denean, enpresak SPKLn ezarritako bitartekoetako bat erabiliz frogatu beharko du.

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

Udalak ofizioz egingo ditu, betiere ahal den neurrian, atal horietan eskatzen diren alderdi guztiak egiaztatzeko dagozkion jarduketak. Bestela, aipatutako dokumentazioa aurkezteko eskatuko du.

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala bete ezean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza; kasu horretan, lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren % 3ari dagokion zenbatekoa (BEZ gabe) eskatuko zaio zehapen modura, eta dokumentazio bera eskatuko zaio eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren araberako hurrengo lizitatzaileari.

* *Aldi baterako enpresa-elkartearen kasuan, aldi baterako elkartearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala erabakitzeko, hura osatzen duten bakoitzarentzat egiaztatutako ezaugarriak batuko dira.*

Sailkapenaren betekizuna betetzen den baloratzeko balioztatzeko, taldean parte hartzen duten enpresariei dagokienez, kontuan hartuko dira, arauz zehazten den moduan, haietako bakoitzaren ezaugarri bateratuak, berei dagokien sailkapenetan adieraziak. Nolanahi ere, bateratzeko, enpresa guztiek -enpresaren sailkapena lortu beharko dute aurretik, betiere SPKLren 69. artikuluaren 5. atalean espainiarrak ez diren Europar Batasuneko estatu kideetako eta sinatu duten estatuetako enpresarientzat finkatutakoaren kalterik gabe.

Sailkapenak bateratzeko erregimena arauz finkatuta dagoena izango da.

3.- **Esleipena**

Behin betiko bermea eratu eta aipatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, kontratazio organoak dokumentazioa jaso ondorengo 5 egun baliodunetan esleituko du kontratua.

Esleipenak arrazoitua izan behar du, lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, Oiartzungo Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da (www.oiartzun.eus).

Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean, SPKLaren 153.3. artikuluaren arabera, zein epetan formalizatu behar den adieraziko da.

Kontratua aldi baterako enpresen elkarte bati esleitzen baldin bazaio, ABEE horrek bere eraketa egiaztatu beharko du, eskritura publikoan eta elkarte horri emandako IFZ-rekin, kontratua formalizatzeko emandako epean. Elkarteak kontratuak iraun bitartean iraun beharko du.

14. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

1.- Kontratuak formalizazioaren bitartez indar juridikoa hartuko du.

2.- Kontratua dokumentu administratiboan formalizatu beharko da, esleipenaren

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

jakinarazpena lizitatzaileei bidali eta 15 egun balioduneko epea igaro ondoren. Nahikoa titulu izango da agiri hori, edozein erregistro publikotara sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzea eskatu ahal izango-du, eta bere kargura izango dira horri dagozkion gastuak.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro ondoren, eta kontratuaren formalizazioa etetea eragiten duen errekurtsorik aurkeztu ez bada, kontratazio-organoak errekerimendua egingo dio esleipendunari, kontratua formalizatu dezan, gehienez ere 5 eguneko epean, errekerimendua jaso duen hurrengo egunetik kontatuta. Era berean jokatuko da, errekurtsoa erabakitzeko organo eskudunak etendura kentzen duenean.

3.- Kontratua formalizatu ondoren, Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean eta Oiartzungo Udaleko kontratatzailearen profilean (www.oiartzun.eus) argitaratuko da.

4.- Kontratuaren formalizaziotik 15 eguneko epean, kontratistak hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko du, gauzatuko dituen jardueren koordinazioari dagokionean:

- Hartu duten prebentzioaren antolaketa moduaren ziurtagiria.
- Arriskuen ebaluazioa, beren jarduerari dagokionez; eta prebentzioko jardueraren plangintza.
- Bere lanpostuan aritzeko langileen mediku-gaitasunaren ziurtagiria (osasun zaintza).
- Langileek egiten duten jarduerari buruzko beharrezko informazioa eta prestakuntza jaso dutela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Langileen lanpostuen jardueretarako beharrezkoak diren Norbera Babesteko Ekipamenduen entrega ziurtagiria eta hauek erabiltzeko beharrezko informazioa eta prestakuntza jaso dutela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Langileek sinatutako dokumentua, Oiartzungo Udaleko areto eta instalazioetan lanak garatzeko beharrezko informazioa eta argibideak jaso dituztela egiaztatzen duena.
- Lanak egingo dituzten langileen zerrenda. Zerrenda hau eguneratua mantenduko da, zerrendan ez dauden langileei ez baitie utziko lan zentroan sartzen.
- KLO (Kotizazioen Likidazio Ordainagiria), LIZ (Langileen Izen Zerrenda) kotizazio ziurtagiriak eta ALT (Altan dauden Langileen Txostena) eta Gizarte Segurantzarako kuota ordainketen eta zerga-betebeharren ziurtagiriak.
- Betetzen den jarduerari buruzko erantzukizun zibileko polizen kopiak.

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

OIARTZUNGO
UDALA

III. KONTRATUA GAUZATZEA

15. KONTRATUA GAUZATZEA

1.- Kontratazio organoak, SPKLren 62. artikuluak xedatutakoaren arabera, kontratuaren arduraduna izendatuko du. Pertsona horren eginkizuna izango da kontratua betetzen dela ikuskatzea eta beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak ematea, hitzartutako prestazioa behar moduan eta egoki gauzatuko dela ziurtatzearren.

Kontratuaren arduraduna izango da enpresa esleipendunaren eta kontratazio organoaren arteko solaskidea.

2.- Lanak ezingo dira hasi, kontratistak kontratua sinatzen duen arte.

3.- Kontratista behartuta dago kontratua betetzera lanak egiteko finkatuta dagoen epe barruan, baita, bere kasuan, zehaztu diren zatiko epeetan.

Kontratista berandutzeak ez du Administrazioaren aldetik aurrez abisatu beharra ekarriko. Kontratista, berari egoztekoak diren arrazoiak tarteko, epea bere osotasunean betetzerakoan berandutu egin bada, Administrazioak kontratua suntsitzeko edo SPKLen 193. artikuluan aurreikusitako zehapenak jartzeko erabakia hartu ahal izango du.

4.- Kontratistak kontratua bere “arrisku eta kontura” onartzen duela ulertuko da, SPKLen 197. artikuluaren arabera.

5.- Era berean, jarduerarekin hasi baino lehen, enpresa kontratistak idatziz egiaztatu beharko du arriskuen ebaluaketa eta prebentziozko jardueraren planifikazioa egina duela, baita laneko zentroan beren zerbitzuak beteko dituzten langileei dagokienez informazio eta formazio alorreko obligazioak bete dituela ere, hori guztia urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuan jasotzen dena kontuan hartuz, laneko arriskuen prebentzioari buruzko dekretuan, hain zuzen.

6.- Kontratua indarrean dagoen bitartean, kontratistak ez du ezarriko merkataritza loturarik Nazio Batuen Erakundearen 183. batzar orokorrak onartu eta aldarrikatutako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean ezarritakoa eta horiek arautzen dituzten printzipio orokorrak urratzen dituzten estatu eta enpresekin.

7.- Edozein kasutan, kontratua gauzatzerakoan, kontratuan ezarritako klausulak eta baldintza agirietan dauden baldintzak eta xehetasun teknikoak bete beharko dira, baita kontratazio organoak kontratistari haiek interpretatzeko ematen dizkion jarraibideak ere. Kontratua Udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta honek idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

8.- Kontratista izango da egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazio eta zerbitzuen

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

kalitate teknikoaren erantzulea, baita kontratua gauzatzean egindako omisioek, akatsek, metodo desegokiek edo ondorio okerrek Administrazioari edo hirugarrenei dakarzkien ondorioen erantzulea ere.

9.- Kontratista bere eskaintzan eskainitako giza baliabideak eta baliabide materialak, hobekuntzak eta proposamenak, kontratuaren exekuziora atxikitzera behartua egongo da.

16. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

SPKLren 202. artikuluaren arabera, kontratua gauzatzeko baldintza berezi bezala ezartzen dira honakoak, kontratistari nahiz azpikontratista guztiei era berean eskatuko zaizkienak:

Klausula honetan jasotzen diren baldintzak kontraturako funtsezko betebeharrak dira, eta beraz SPKLren 202.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintza horiek ez betetzeak zehapenak ezartzea ekar dezake edo kontratua amaitzea eragin dezake, 211.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

16.1 BETE BEHARREKO GUTXIENEKO LAN BALDINTZAK

1.- Kontratista behartua dago betetzera lan arloan indarrean dauden legezko xedapenak, Gizarte Segurantzakoak, Hitzarmen Kolektiboenak eta laneko segurtasun, osasun eta higienekoak, baita lan arriskuen prebentzioari dagozkionak, arlo fiskalekoak, enplegua babesteari dagozkionak, genero berdintasunaren arlokoak eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzeari eta laneratzeari buruzkoak ere, kontratu honetako zerbitzuan erabiltzen dituen langileei dagokienez, eta Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango horiek betetzen ez baditu.

Zehazki, laneko segurtasun eta arriskuen prebentzioari dagokionean, enpresa kontratistak nahitaezko edo beharrezko laneko segurtasun eta higiene neurriak hartu beharko ditu, kontratuaren xedeari lotuta dauden langileen osotasunarentzat edo osasunarentzat sor daitezkeen arriskuei aurrea hartzeko.

2.- Enpresa esleipendunak, kontratua sinatu baino lehen, adierazi beharko du zer hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren xedeko jarduera egiten duten langileei.

3.- Enpresa kontratatuak, kontratuaren exekuzio aldi osoan, hitzarmen kolektibo horretan jasotako lansaria ordaindu beharko du, langile bakoitzari dagokion lanbide kategoriaren arabera, eta inola ere ez da izango hor agertzen dena baino txikiagoa.

Halaber, kontratuaren egikaritzeak irauten duen bitartean, enpresa kontratistak kontratura atxikitako langileen lan-baldintzak mantendu beharko ditu derrigorrez aplikagarri den hitzarmen kolektiboaren arabera, horiek okertu gabe; eta hori, hitzarmen kolektiboei indarraldia amaitzeari buruz aurreikuspen legezko edo konbentzionalak aplikatzearen ondorioz aipatu hitzarmenak ondoren indarraldia galtzeko aukeraren kalterik gabe.

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

Betebehar hori bete dela ulertuko da hitzarmenak indarra galdu aurreko –halakorik gertatuz gero– berehalako unean hitzartuta zeuden lan-baldintzak mantentzen badira. Edonola ere, lan baldintzak mantendu direla ulertuko da baldin eta lan baldintzak aldatu badira enpresa kontratistaren eta langileen ordezkaritzaren arteko adostasunaren bidez. Hala ere, soldata baldintzak ezingo dira inola ere alorreko hitzarmen kolektibo aplikagarrian xedatutakoak baino apalagoak izan. Kontratistak egoera hori egiaztatzeko behar den informazio edo dokumentazioa aurkeztu beharko dio kontratazio organoari.

4.- Era berean, enpresa kontratatua behartuta egongo da kontratuaren xedeko jarduera egiten duten langileei benetan aplikatzen zaizkien lan baldintzen inguruko informazioa ematera, baldin eta hala eskatzen bazaio.

5.- Klausula honetan jasotako betebeharrak betetzeak sortutako gastuak enpresa kontratistaren konturakoak izango dira, eta kontratua gauzatzeko eskainitako prezioan sartuta egongo dira.

6.- Azpikontrataziorik egiten bada, klausula honetan xedatutakoa bete beharko du enpresa azpikontratistak. Azpikontratatutako jarduerari hasiera eman baino lehen, enpresa kontratistak egiaztatu beharko du azpikontratatutako enpresak ere lan eta Gizarte Segurantza arloan indarrean diren xedapenak aplikatzen eta betetzen dituztela, baita segurtasun, osasun eta higiene arlokoak eta lan arriskuen prebentzioari dagozkion betebeharrak ere, eta horren berri eman beharko dio kontratazio organoari.

7.- Baldin eta, enpresa kontratistak edo azpikontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

16.2 EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKO BALDINTZAK

1.- Enpresa kontratistak, kontratua egikaritzean, emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzen duten neurriak ezarri beharko ditu, enplegurako sarbideari, sailkapen pertsonalari, sustapenari, iraunkortasunari, prestakuntzari, ordainsariei, kalitateari, lan egonkortasunari eta lanaldiaren iraupenari eta antolakuntzari dagozkienak, baita bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa bateratzen laguntzen dietenak ere, kontratua egikaritzera atxikitako langileei dagokienean, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak eta emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak xedatutakoari jarraiki.

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

2.- Horrekin lotuta, enpresa kontratistak emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, eta emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak ezarritako printzipioak eta betebeharrak bete beharko ditu.

3.- Enpresa kontratistak hizkera ez sexista eta inklusiboa erabili beharko du kontratu hau egikaritzean sortzen den memoria, dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan. Halaber, emakumeen bazterketa iradokitzen duten irudiak edota estereotipo sexistak ekidin beharko ditu, eta berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta genero rol eta identitateen aniztasuna sustatu beharko ditu.

4.- Gainera, enpresa kontratistak begirunez parte hartuko duela bermatu beharko du prozesuko jarduera guztietan, jatorri aniztasuna, aniztasun funtzionala eta aniztasun sexuala kontuan hartuta. Beraz, jarduerak eta hizkuntza modu integratzailean egokitu beharko dira, aukera berdintasuna eta baldintza berberak lortzeko. Ez dira erabiliko ez hizkuntza ez irudi estereotipatuak, arrazistak, xenofoboak eta diskriminatzaileak, ez prozesuan, ez materialetan eta gainerako euskarrietan.

5.- Kontratua sinatzen den egunean esleipendunak plantilla desorekatua baldin badu –hau da, emakumeak guztizkoaren %40 baino gutxiagoko ordezkaritza edo presentzia baldin badute- behartuak izango dira kontratua gauzatzeko behar diren langile-kontratazio berrietan, aldi baterako edo mugagabe izaerako kontratazioetan, kontratu berri horien %10 gutxienez emakumeak izatera (bulegoko langileak izan ezik).

Hori behar bezala bete ahal izateko, kontratista behartua egongo da bere lan eskaintzak Lanbiden edo antzeko ezaugarrietako eskualdeko enplegu plataformetan argitaratzera, eta bere osotasunean egindako hautaketa prozesua modu frogagarrian dokumentatzera (jasotako eskaintzak, CV, baztertzeko/hautatzeko arrazoiak, etab.), baita kasuan eskainitako lanpostuetarako emakume enplegu eskatzaile egokiak ez izatea ere.

Baldintza hori ez da betetzat hartuko gutxieneko ehunekoa betetzen ez bada, kontratistak ez badu publizitaterik egiaztatzen edo ez badu entregatzen egindako prozesuaren dokumentazioa, aurreko paragrafoan adierazitako terminoetan.

16.3 KONTRATUA GAUZATZEAN BETE BEHARREKO HIZKUNTZA BALDINTZAK

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarria eta, besteak beste, Udalaren barne erabilera planean erregulatua.

1.- **Udalaren eta enpresaren arteko harremana**

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

Enpresa kontratistak Udalaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan, bai ahozkoetan, bai idatzizkoetan eta, beraz, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak Udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, 179/2019 Dekretuaren, azaroaren 19koaren, III. kapituluan zehaztutako aukerari jarraiki. Oiartzungo Udalak lehenetsi egiten du euskararen erabilera barne nahiz kanpo harremanetan.

2.- **Zerbitzu hizkuntza**

Kontratuaren zerbitzu hizkuntza nagusia euskara izango da; erabiltzaileekiko harremana euskara izango da nagusiki, eta euskaraz izatea sustatuko da. Horrela, bada, herritarrekin ahozko harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik, bileretan…) euskaraz egingo da, eta era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak ere (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak…) euskaraz egingo dira. Herritarrak eskatzen duenean, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez.

Kontratatuko enpresaren betebeharra izango da hori bermatzeko beharrezko neurriak hartzea, Oiartzungo Udalaren Hizkuntza Normalizaziorako Sailaren lankidetzaz eta aholkularitzaz baliatu ahal izango duelarik.

Horrekin lotuta, administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, zerbitzura emango duten pertsonek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez, kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko direla. Horregatik, eman beharreko zerbitzuaren izaera kontuan izanik, zerbitzura atxikituko diren langileek euskarari dagokionean Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun maila daukatela egiaztatu beharko da, karatularen 11.3 atalean ezarritakoarekin bat.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko du.

Subrogazio kasuetan, langileek eskatutako hizkuntza-gaitasuna betetzen ez badute, kontratua euskaraz gauzatu ahal izateko, beharrezko neurriak adostuko dira herritarren eta bezeroen hizkuntza eskubideak bermatze aldera.

3.- **Idatzizko elementuak**

Errotuluak, oharrak, kartelak, seinaleak eta eraikineko hizkuntza paisaia orokorreko gainerako elementuak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan; piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

edo ulergarriak direnean, eta aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldez aurretik adostuta.

4.- **Ahozkoan**

Aurrez aurrekoan edo herritarrekiko zein udalarekiko bestelako ahozko harremanetan euskara izango da lehentasunezko eta ohiko hizkuntza. Betiere, hizkuntza ofizialetako hiztunen hizkuntz eskubideak bermatuta.

5.- **Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren jarraipena**

Udaleko kontratuaren arduradunak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu berdinean, eta horren berri emango dio Udaleko Hizkuntza Normalizaziorako Sailari. Ondoren, Hizkuntza Normalizaziorako Sailak bere balorazioa egingo du, oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

16.4 KONTRATUA GAUZATZEAN BETE BEHARREKO INGURUMEN IRIZPIDEAK

Oiartzungo Udalak, garapen iraunkorra sustatzeko planen oinarri gisa, bere helburuen artean du erosketa publiko arduratsua bultzatzea irizpide sozial eta ingurumenekoak kontuan hartuz. Horrenbestez, kontratua gauzatzean bete behar diren ondorengo ingurumen baldintzak ezartzen dira:

- Berotegi-efektua duten gasen emisioak gutxitzea, hartara ekonomia jasangarriari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 legearen 88. artikuluak ezartzen duen helburua betetzen lagunduz.
- Kontratua betetzearen ondorioz sortzen den dokumentazio guztia (txostenak, lan-parteak, gorabeherak…) euskarri informatikoan egin eta banatu beharko da, haien inprimaketa ahalik eta gehien minimizatzeko.
- Kontratua betetzen den bitartean sortutako hondakinen gaikako bilketa egitea.

16.5 SUBROGAZIOA

1.- Aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan ezarritako betebeharren arabera, kontratu honen enpresa esleipendunak subrogatu egin beharko du aurreko enpresak zenbait langileren lan-kontratuekiko zeukan jarreran.

Langile-zerrenda eta beren egungo kontratuetako baldintzak, egungo enpresa esleipendunak emandako datuak, baldintza agiri honen **IV. Eranskinean** jasotzen dira, lan kostuen ebaluaketa egin ahal izateko ondoriotarako SPKLren 130. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Betebehar hori ezartzeak ez dakar, inola ere, enpresa esleipendunak edo hark

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

azpikontratatutako enpresek kontratatutako langileek Oiartzungo Udalarekiko lan- edo funtzionariotza loturarik sortzea edo aitortzea.

Subrogazioa eginda lan-kostuak handiagoak badira aurreko kontratistak kontratazio organoari emandako informaziotik ondorioztatzen direnak baino, kontratistak zuzeneko akzioa erabili ahal izango du aurreko kontratistaren aurka.

2.- Subrogazioa egiten den unean arauzko oporrak hartu ez dituzten langileek zerbitzua hartzen duen enpresa berriarekin hartuko dituzte; bestalde, enpresa berriak hari dagokion denboraldiaren zatia baizik ez du ordainduko, beste zatia zerbitzua zeukan enpresak ordaindu beharko baitu, dagokion likidazioaren bidez.

3.- Zerbitzua uzten duen enpresak agiri hauek eman beharko dizkio zerbitzua hartzen duen enpresa berriari:

a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean duela egiaztatzen duen agiria, erakunde eskudunak egina, eta ETak 42 artikuluan aipatzen den ziurtagiria.
b) Eragiten dietan langileen soldaten azken lau agirien fotokopia.
c) Gizarte Segurantzako kotizazioaren azken lau hilabeteetako TC-1 eta TC-2 orrien fotokopia.
d) Langileen zerrenda, eta, hor, langileen izena eta abizenak, Gizarte Segurantzako afiliazio-zenbakia, antzinatasuna, lanbide-kategoria, lanaldia, lan-ordutegia, kontratazio-mota eta oporrak hartutako egunak ondo zehaztuta. Langilea langileen legezko ordezkaria bada, kargu horren iraunaldia zehaztu beharko da.
e) Subrogazioak eragiten dien langileen lan-kontratuen fotokopia.
f) Zerbitzua uzten duen enpresak eragindako langile bakoitzari dagozkion zatien likidazioa eman diola eta ordaintzeko ezer ez daukala frogatzen duten eta eragindako langile bakoitzak behar bezala izapidetu dituen agirien kopia. Agiri horiek zerbitzua hartzen duen enpresa berriak eduki behar ditu titular berri gisa zerbitzua egiten hasten den egunerako.

4.- Era berean, eta alde batera utzi gabe, hala badagokio, Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginak –urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak– 44. artikuluan ezarritakoa aplikatzea, subrogazioak ukitutako langileei ordaindu gabeko soldaten eta sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioen erantzulea kontratista izango da, baita kontratua suntsitzen denean eta kontratista berriak langileak subrogatzen dituenean ere; betebehar hori ez da inola ere izango kontratista berriarena.

Kasu horretan, Administrazioak, aipatutako soldatak ez direla ordaindu egiaztatu ondoren, kontratistari zor zaizkion diru kopuruak atxikiko dizkio, soldata horien ordainketa bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko soldatak ordaindu direla frogatu arte.

17. DATUEN BABESA

1.- Enpresa kontratistak hauetan xedatutakoa bete beharko du: 2016/679 Erregelamendua

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

(EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena) (aurrerantzean, Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra); eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

2.- Baldin eta enpresa kontratistak edo azpikontratistak, kontratua dela eta, datu pertsonalak tratatzen edo eskuratzen baditu, SPKLren 25. xedapen gehigarrian xedatutakoa beteko du, bai eta honako arau hauek ere:

1. Tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideen arabera bakarrik tratatuko ditu datuak kontratistak.
2. Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak kontratuaren helburua betetzeko bakar bakarrik erabiliko dira; ezingo dira, beraz, adierazitako xederako ez beste baterako erabili.
3. Kontratu honen ondorioz tratatutako datu pertsonal bat bera ere ez zaie hirugarrenei jakinaraziko. Horrenbestez, kontratistak hitz ematen du datuok edo horiekin sortutako fitxategiak ez dizkiola jakinaraziko, lagako, transferituko edo komunikatuko hirugarren bati, ez ahoz ez idatziz, ez bitarteko elektronikoen bidez, ez paper bidez, ez sarbide informatikoen bidez, ezta ikusteko ere.
4. Datuak isilpean edukitzeko betebeharra dute bai kontratistak bai kontratuaren xede den zerbitzuan esku hartzen duten langile guztiek, Datu Pertsonalen Lege Organikoan aipatzen den bezala. Kontratua bete delako edo suntsitu delako iraungi ondoren ere, betebehar horrek iraun egingo du.
5. Kontratistak hitz ematen du datuen babesaren arloko indarreko araudian eta Segurtasuneko Eskema Nazionalean eskatutako bitarteko tekniko, administratibo eta antolakuntzakoak hartuko dituela, kontratuaren xede den zerbitzua emateko behar diren datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko:
   a) Horri dagokionez, lanean hasi aurretik, enpresak kontratazio-organoari zerrenda bat emango dio, datu pertsonalak eskuratzeko aukera izango duten langile guztien izenekin, abizenekin, funtzioekin eta lana garatuko duten lekuekin. Kontratua bete bitartean langile berriak sartu edo daudenei baja eman behar bazaie, enpresa kontratistak zerrenda berri bat entregatuko du, aldaketa gertatu denetik gehienez ere astebeteko epean. Bai enpresa kontratistak bai zerrenda horietan azaltzen diren langileek formalki hitz eman behar dute, idatziz, tratatutako datuei buruzko sekretu profesionala gordeko dutela.
   b) Kontratistak baldintza teknikoetan zehazten diren segurtasun-neurriak aplikatuko ditu tratamendu-zentroetan, lokaletan, ekipoetan, sistemetan eta programetan, baldin eta halakorik zehazten bada.
   c) Kontratuaren xede den zerbitzua bukatu ondoren, kontratistak itzuli edo suntsitu edo ezabatu egingo ditu datu pertsonalak dituzten fitxategi guztiak. Suntsiketa egin ondoren ezinezkoa izango da horiek berreskuratzeko edozein prozesu aplikatzea. Akta bidez egingo da fitxategiak itzultzearen edo suntsitzearen ziurtagiria, eta enpresa kontratistaren ordezkariak eta lanen zuzendaritza betetzen duen pertsonak sinatuko dute. Aktan zirkunstantzia horiek guztiak jasoko dira.

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

3.- Gainera, enpresa esleipendunak, kontratua dela eta, datu pertsonalak tratatu edo eskuratuko baldin baditu, kontratua formalizatu aurretik adierazpen bat aurkeztu beharko du, datu pertsonalak gordeko diren zerbitzariak non egongo diren eta zerbitzariekin lotutako zerbitzuak nondik emango diren adieraziz. Era berean, kontratuan irauten duen bitartean adierazpen horretan emandako informazioan gertatzen den edozein aldaketaren berri eman beharko du.

Halaber, lizitatzaileek beren eskaintzetan adierazi beharko dute, zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak azpikontratatzea aurreikusten baldin badute, egikaritzeko ardura emango zaien azpikontratisten enpresari profila edo izena, kaudimen profesional edo teknikoko baldintzen arabera zehaztua.

4.- Oiartzungo Udala izango da kontratuaren ondorioz gauzatutako datu pertsonalen tratamenduen Tratamenduaren Erantzulea, eta enpresa kontratista Tratamenduaren Eragilea izango da. Ondorioz, SPKLren 25. xedapen gehigarriaren baitan, bien arteko tratamendu-eragilearen kontratua burutu beharko da, Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorraren 28.3 artikuluaren betekizunak beteko dituena.

5.- Enpresa kontratistak edo azpikontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, Administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

Klausula honetan jasotzen diren baldintzak ere kontraturako funtsezko betebeharrak dira eta, beraz, SPKLren 202.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintza horiek ez betetzeak zehapenak ezartzea ekar dezake edo kontratua amaitzea eragin dezake, 211.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

18. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETU-BETEBEHARRA

Indarrean dagoen legeriak informazio publikoa eskuratzeari buruz esaten duena errespetatuz eta SPKLak esleipenaren publizitateari buruz eta hautagai eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz xedatzen duena kaltetu gabe, Oiartzungo Udalak ezin izango du beren eskaintza aurkezteko unean, sekretu tekniko edo komertzialak direla arrazoituz enpresariek konfidentzialtzat ematen dituzten informazioak zabaldu, ez eta, eskaintzen alderdi konfidentzialak edo eta lehiaketa-prozedura honetan edo beste batzuetan konpetentzia faltsutzeko erabil daitekeen ezein informazio ere.

Oiartzungo Udalaren konfidentzialtasun betebeharra berriz, ezin izango da esleipendunaren eskaintzaren eduki osora zabaldu, ez eta lizitazio prozesuan zehar zuzenean edo zeharka sortzen den txosten nahiz dokumentazio osora zabaldu ere. Zabalkunde mugatua duten dokumentuei bakarrik eragingo die, eta inolaz ere ez publikoki eskuragarriak diren dokumentuei.

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

Konfidentzialtasun betebeharrak ez dio konfidentzialak ez diren burututako kontratuen zatien zabaltzeari eragingo, besteak beste, likidazioa edo kontratatu diren enpresak eta azpikontratatutakoak, bere kasuan, eta kasu guztietan eskaintzaren alderdi esentzialak eta ondoren egiten diren kontratuaren aldaketak, beti ere Datu Pertsonalen Babesari buruzko legeria errespetatuz, aurreko klausulan adierazten den moduan.

Kontratistak errespetatu egin beharko du baldintza agirian edo kontratuan konfidentzialtzat eman den informazioa, edo bere izaeragatik konfidentzialtzat hartu behar dena, eta kontratuaren exekuzioaren ondorioz ezagutzen duena. Betebehar honek informazioa ezagutu eta 25 urtez iraungo du.

19. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Kontratistaren ardura da kontratua-eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, SPKLren 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

20. KONTRATUAREN ALDAKETAK

1.- Behin kontratua burutzen denean interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango da, klausula honetan ezarritako kasuetan edo SPKLen 205. artikuluan ezarritako kasuetan eta bertan ezarritako mugekin.

2.- Kontratuan aldaketak sartu behar direnean, kontratuaren zuzendaritzak beharrezko proposamena idatziko du, hura justifikatzen, deskribatzen eta baloratzen duten dokumentuek osatua. Administrazioak aldaketa onartu aurretik enpresa kontratistari entzun beharko zaio. Kontratazio organoak onartu beharko ditu aldaketak, SPKLen 191. eta 207. artikuluetan aurreikusitako prozedura tramitatu eta SPKLen 153. artikuluan xedaturikoaren arabera dokumentu administratiboa formalizatu ondoren, behin betiko bermea berregokituta, hala behar badu.

3.- Aurreikusitako aldaketak:

SPKLren 204. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren ondorioetarako, ohartarazten da kontratuak, bere iraunaldian, hasierako prezioaren % 20rainoko aldaketak izan ditzakeela, arrazoi hauengatik:

Eremu berrien ondorioz kontratu honetan zehaztutako jarduketa-guneetako eremuen guztirako m^2-en edo egitura linealen guztirako metro linealen %5eko, edo zuhaitz eta lorontzi kopuru guztiaren %8ko baino gehiagoko gehikuntza bat dagoenean. Ehuneko horien berdinak edo txikiagoak diren gehikuntzak enpresa esleipendunaren kontura izango dira.

Aldaketek ezin dute kontratuan aurreikusi gabe dauden unitateko prezioak ezartzea ekarri.

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

Ondorioz, unitateko prezioa kontratuaren esleipenduna izan den eskaintzan egindako beherapenaren arabera kalkulatuko da.

4.- Aurreikusitako aldaketen kasuan, kontratazio organoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat. Baldintza Agiri honetan aurreikusi gabe eta SPKLren 205. artikuluaren baitan kontratazio organoak erabakitako aldaketak, berriz, nahitaezkoak izango dira kontratistentzat, baldin eta aldaketa horien zenbatekoa, bakarka edo denak batera hartuta, ez bada kontratuaren hasierako prezioaren % 20 baino handiagoa, BEZik gabe.

21. KONTRATISTAREN ONDORENGOA IZATEA

1.- Enpresak edo horien jarduera-adarrak elkartu, bereizi, ekarri edo eskualdatuz gero, kontratuak indarrean jarraituko du ondoriozko erakundearekin. Kasu horietan ondorengoak bere gain hartuko ditu kontratuaren eskubideak eta obligazioak, SPKLren 98. artikuluan eskatutako baldintzak ematen badira.

2.- Kontratistaren betebeharra da nortasun juridikoari eragin lekiokeen edozein aldaketa administrazioari jakinaraztea, eta fakturak ordaintzeko legezko epea eten egingo da subrogazioaren baldintzak betetzen direla egiaztatu arte.

3.- Kontratua esleituko zaion erakundeak izan beharreko baldintzak betetzen ez baditu ezingo zaio subrogatu eta, kasu horretan, kontratistari leporatutako arrazoiengatik amaitutzat emango da kontratua.

22. KONTRATUA LAGATZEA

1.- Kontratuari darizkion eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio kontratistak, betiere lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarria izan ez badira eta lagapenak merkatuko lehiaren egiazko murrizketa eragiten ez badu.

2.- Lagapen hori egiteko, kontratistak SPKLren 214. artikuluan jasotako ondorengo mugak eta baldintzak errespetatu beharko ditu:

a) Kontratazio organoak, aurretik, eta berariaz, baimendu egin behar du lagapena.
b) Lagatzaileak, gutxienez, kontratuaren zenbatekoaren % 20a eginda izan behar du.
c) Lagapenaren hartzaileak Administrazioarekin kontratatzeko gaitasuna izan behar du eta kontratuaren gauzatze-fasearen arabera eskatuko zaion kaudimena izan behar du; halaber, behar bezala sailkatuta egon behar du baldintza hori lagatzaileari eskatu bazaio eta ezingo da kontratatzeko debekuetan sartuta egon.
d) Esleipendunaren eta lagapenaren hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan jaso beharko da.

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

3.- Lagapen hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

23. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du prestazioaren zati bat gauzatzea, aurretik Udalak espresuki baimenduta, eta SPKLren 215, 216 eta 217. artikuluetan xedatutakoari jarraiki.

24. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Enpresa esleipenduna behartuta egongo da kontratua gauzatzera kontratuan ezarritako klausuletan jasotakoa, kontratua arautzen duten baldintza agiriak, aurkeztutako eskaintza eta Udalak esleitutako zerbitzuak hobeto burutzeko kontratistari emandako jarraibideak zehatz-mehatz betez.

Baldintza agiri honetan edo Baldintza Teknikoen Agirian ezarritako eskakizun zehatzak edota eskaintza ez betetzea suposatzen duen edozein ekintza edo ez-egite zehapena jartzeko moduko ez-betetzea izango da. Baita zerbitzuen prestazioa ematerakoan egindako irregulartasunak ere.

Edonola ere, zehapenak ezarri ahal izateko dagokion espedientea tramitatu beharko da, eta hori Udalak edozein moduz ez-betetzearen berri izaten duenean hasi ahal izango da. Kasu honetan, eskuduntza duten udal zerbitzuek, kontratistari audientzia eman ondoren, gertaerak argitzeko beharrezko diligentziak egingo dituzte.

24.1. Arau-hausteak

Oso larriak, larriak edo arinak izango dira kontratistak kontratua gauzatzen duen bitartean egiten dituen arau-hausteak.

a) Arau hauste oso larriak izango dira honako hauek:

- Kontratatutako zerbitzuak ematen ez hastea kontratuan ezarritako epean, edo zerbitzu horiek emateari uztea, ezinbesteko kausen ondorioz ez bada.
- Lanak nabarmenki oker edo modu irregularrean ematea.
- Zerbitzuak emateko eran iruzurra egitea, baliabide egokiak edo eskatutako oinarrizko elementuak erabili ez direlako.
- Zerbitzua emateko jarritako makinaria edo baliabide materialak kontserbazio edo funtzionamendu egoera txarrean izatea, pertsona edo ondasunei kalte egiteko edo emandako zerbitzuen prestazio eraginkorra galarazteko moduan.
- Behin eta berriro edo era orokortuan Oiartzungo Udalak emandako aginduen desobedientzia: zerbitzuak emateko moduari, erregimenari eta ordenari buruzkoak, eta orokorrean zerbitzu horien prestazioa erregulatzen dituzten arauei buruzkoak.

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

- Lanaren, Gizarte Segurantzaren, laneko segurtasun eta higienearen eta bide-segurtasunaren arloetan indarrean dauden legezko edo arauzko betebeharrak ez betetzea.
- Arauak, erregelamenduak edo osasun eta segurtasun-planak ez betetzea langileen segurtasunari larriki eragiten diotenean.
- Oiartzungo Udalari zainketa eta ikuskatze-lanak egiten ez uztea edo oztopoak jartzea, edota Baldintza Agirietan agindutako informazioa Udalari ez bidaltzea.
- Burutu beharreko zereginak behin eta berriro gaizki gauzatzea: inausketa txarrak, pitarekin zuhaitzen azalari zauri larriak eragitea, makineriaren egoera txarra dela eta belarra gaizki moztea, hondakinen gaikako bilketa gaizki egitea eta abar.
- Behin eta berriro edo era orokortuan ez betetzea kontratazio hau araupetzen duten pleguetan ezarritako edozein baldintza edo maiztasunak.
- Zerbitzuen arduraduna (edo, kasua balitz, arduradunak) behin eta berriro edo era orokortuan ez egotea zerbitzuan.
- Ezarritako zehapen ekonomikoak behin-betiko bermearen kargura kobratzearen ondorioz hau murriztua geratu izan balitz 10 eguneko epean berau ez birdoitzea.
- Ezohiko eta/edo larrialdiko egoeragatik urgentziazko esku-hartzea behar duen egoera ezagutu edo salatu ondoren, Oiartzungo Udalak aginduta, berehala ez jardutea.
- Esleipendunak baldintza agiri honetan edo Baldintza Teknikoen Agirian ezarritako edozein obligazio ez betetzea, edo esleipenaren eskaintzan hartutako konpromezuak ez betetzea. Ez betetze hauek auzotarrei edo oinezkoen segurtasunari, trafikoari, ondasun materialei, osasungarritasun publikoari edo ingurumenari kalte larriak edo berehalako arriskua eragiten badiote edo antzeko beste egitateak, nahiz eta, hemen jasotako astungarriak tartean ez baleude, bere izaeragatik berariaz ez betetze arin edo larri bezala tipifikatuak egon.
- Kontratuaren xede diren zerbitzuen prestazioarekin erlazionatutako informazioa ezkutatzea edo faltsutzea.
- Azpikontrataziorako betebehar, baldintza eta gainerako baldintzak ez betetzeagatik (SPKLren 215. artikulua).
- Hiru ez betetze larri egitea urtebeteko epean.
- Oro har, kontratistak ez betetzea funtsezkoa den edozein kontratu-betebehar.

b) Arau hauste larriak izango dira:

- Eskainitako makinaria, baliabide materialak edo giza baliabideak zerbitzuan jartzeko garaian atzerapena.
- Plangintzak eta hileroko txostenak osatugabe aurkeztea edo garaiz ez aurkeztea, antzemandako gabeziak ez jakinaraztea, eta eskatutako informazioa ez aurkeztea edo egiazkoa ez dena aurkeztea.
- Hutsegiteak zuzentzeko Udalak idatziz emandako aginduei aitzakiarik gabeko desobedientzia.

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

- Noizbehinka Oiartzungo Udalak emandako aginduen desobedientzia: zerbitzuak emateko moduari, erregimenari eta ordenari buruzkoak, eta orokorrean zerbitzu horien prestazioa erregulatzen dituzten arauei buruzkoak.
- Burutu beharreko zereginak noizbehinka gaizki gauzatzea: inausketa txarrak, pitarekin zuhaitzen azalari zauri larriak eragitea, makineriaren egoera txarra dela eta belarra gaizki moztea, hondakinen gaikako bilketa gaizki egitea eta abar.
- Noizbehinka ez betetzea kontratazio hau araupetzen duten pleguetan ezarritako edozein baldintza edo maiztasun.
- Kontratua gauzatzeko dauden Ingurumen eta Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasuna baldintza bereziak ez betetzea.
- Bide publikoan eta udalerriko beste eremu batzuetan zikinkeria sortzea, zaratak eragitea, isurketak egitea eta oro har hiritarrentzako behargabeko eragozpenak eragitea.
- Esleipendunari gasturik sortzen ez dion zerbitzuen xehetasunezko aldaketei buruzko Udalak hartutako erabakiak ez betetzea.
- Kontratua exekutatzeko eskainitako giza baliabideak, makinaria edo baliabide materialak ez jartzea.
- Eskainitako makinariaren edo baliabide materialen ezaugarrien aldaketa.
- Zerbitzuen prestaziorako beharrezko segurtasun-gailuen eza.
- Uniformeak edo materiala publizitate edo propaganda elementuen euskarri bezala erabiltzea.
- Enpresak kontratatutako langileek auzotarrekin istiluak izatea.
- Esleitutako lanen egikaritzan ari direnean, kontratatutako enpresaren langileek elkarren artean liskarrak edo borrokak izatea.
- Nahitaezko aseguruen primen ordainketak eguneratuta ez izatea (erantzukizun zibila, ibilgailuak).
- Zerbitzuen prestaziora atxikitako makinaria edo baliabide materialak kontserbazio, garbitasun, mantentze edo funtzionamendu egoera txarrean edukitzea.
- Ibilgailua lanean ari denean, distira-argirik gabe edo bere homologazioan ezarritako beste segurtasun-gailurik gabe aritzea.
- Hirugarrengoei eragindako kalteen aurrean erantzukizunik ez hartzea.
- Enblematiko, historiko edo babestutako elementu arkitektonikoak hondatzea, eragindako kalteek eragindako gastuez erantzuteko enpresa esleipendunaren beharraren kalterik gabe.
- Zerbitzuen Arduraduna (edo, kasua balitz, Arduradunak) noizbehinka ez egotea zerbitzuan.
- Hiru ez-betetze arin egitea urtebeteko epean.

c) Arau hauste arinak izango dira ondorengoak:

- Udalak emandako aginduak betetzean berandutzea, baldin eta berandutze honek 24

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

ordu ez baditu gainditzen.

- Bide publikoan eta udalerriko beste eremu batzuetan besterik gabe zikinkeria egotea, batez ere lorezaintza eta inausketa hondakinen presentzia edozein arrazoik zabaldu ahal izan duena.
- Udal materialen edo hiri altzarien elementuak hondatzea (bankuak, hesiak, hondakinen ontziak, eta abar), eragindako kalteek eragindako gastuez erantzuteko enpresa esleipendunaren beharraren kalterik gabe.
- Kontratatutako langileek arauzko uniformea ez erabiltzea, egoera desitxurosoan egotea, edo ezarritako diseinuarekin zerikusirik gabeko ezaugarriak eramatea.
- Partikularrei, Udaleko langileei, autoritatearen agenteei edo Udalari zerbitzuak ematen dizkion beste edozein enpresaren langilegoari errespetu-falta.
- Zerbitzuen Arduraduna (edo, kasua balitz, Arduradunak) ez egotea aurkitzeko moduan edo zerbitzu orduetatik kanpo ez atenditzea.
- Lehendik ez aurreikusitako beste batzuk, nolabait kontratazio hau araupetzen duten Baldintza Agirietan ezarritako baldintzen kalterako direnean, lanentzako larriak ez diren kalteak sortzen dutenean edo erabilitako baliabideen edo langileen irudian hutsuneak eragiten dituztenean.

24.2. Zehapenak

Honako zehapen hauek jarri ahal izango zaizkio kontratistari:

a) Arau hauste oso larriengatik: kontratuaren urteko prezioaren %5etik %10era artekoak, BEZik gabe.
b) Arau hauste larriengatik: kontratuaren urteko prezioaren %1etik %5era artekoak, BEZik gabe
c) Arau hauste arinengatik: kontratuaren urteko prezioaren %1era artekoak, BEZik gabe.

Hala eta guztiz ere, arau hauste oso larriak direnean, Udalak erabaki ahal izango du zehapenak jarriko dituen, klausula honetan aurreikusitakoaren arabera, edo kontratua suntsitzeko dagokion espedientea hasiko duen, eragindako kalte-galerengatik kalte-ordaina emateko betebeharraren kalterik gabe.

24.3. Eskumena eta ordainketa

Zehapen horiek, kontratuaren arduradunak proposatuta, Alkatetza-Lehendakaritzak emaniko ebazpenaren arabera jarriko dira, arau-hauste arinak eta larriak direnean, eta arau-hauste oso larriak direnean, berriz, kontratazio organoak jarriko ditu, aurrez dagokion espedientea izapidetu ondoren. Kasu horretan kontratistari audientzia emango zaio, eta hala badagokio, abal-emaileari.

Zehapenak jartzeak inolaz ere ez du esan nahi kontratista hutsegitea zuzentzeko bere betebeharretik libratuko denik edo zehapena eragin zuen prestazioa egitetik libratuko denik, betetze hori indarrean dagoen araudian ezarritako nahitaez betearazteko edozein bidetatik

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

eskatu ahal izango delarik, edo ez-betetzeak denboran jarraitzen badu, zehapenak behin eta berriz jarri ahal izango direlarik, baldintza agiri honetan ezarritakoaren arabera.

Edozein kasutan, zehapenak kontratugileari egin beharreko ordainketetatik kenketa eginez ordainduko dira edo bermetik kenduaz, ordainketetatik kendu ezin direnean. Azken kasu horretan, Udalak eskatzen dionetik kontatzen hasi eta gehienez 15 eguneko epean, berriro berme hori osatu beharko du kontratistak, eta hala ez egitea kontratua suntsiarazteko kausa izango da.

24.4. Kalte ordainen erreklamazioa

Bermea galtzeak edo zehapenaren zenbatekoa ordaintzeak ez du baztertzen kontratistaren berandutzak edo berari egotzi dagokiokeen beste arrazoiren batengatik eragindako kalte eta galerengatik Administrazioak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea eta dagokion erreklamazioa egiteko aukera izatea.

25. ZERBITZUA HARTZEA ETA BERME EPEA

1.- Kontratua gauzatutzat hartuko da kontratistak kontratuaren xedea erabat gauzatu duenean, ezarritako baldintzetan eta Administrazioa gogobeteta.

2.- Kontratuaren xede den prestazioa gauzatu eta gehienez hilabete pasa baino lehen, onarpen egintza formala eta positiboa egingo da.

Prestazioen onarpena egiterakoan antzematen bada prestazio horiek ez direla ezarritako baldintzetan gauzatu eta bete, edo akatsak daudela, kontratatutako prestazioak egiteko edo antzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko zaio kontratistari. Lanak ez baldin badatoz bat kontratatutako prestazioarekin kontratistari egotz dakizkiokeen hutsegite eta akatsengatik, Udalak uko egin ahal izango dio prestazioari, ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuta, edo eskubidea edukiko du, bere kasuan, ordaindutako prezioa berreskuratzeko. Horrez gain, Oiartzungo Udalak baldintza agiri honen 24. klausulan aurreikusitako zehapenak eta kalte ordaina eskatu ahal izango ditu.

3.- Halaber, URTEBETEKO berme epea egongo da, onarpen egintza formala eta positiboaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, SPKLn eta HAKLEOean adierazitako ondorioetarako ezartzen dena.

Berme epean egiaztatzen bada egindako lanetan hutsegiteak edo akatsak daudela, kontratazio organoak kontratistari horiek zuzentzeko eskatzeko eskubidea izango du.

Berme epea amaitzen bada Udalak adierazitako eragozpenik edo salaketarik formalizatu gabe, kontratista aske geratuko da egindako prestazioak direla eta izan zezakeen erantzukizunetik, eta behin betiko bermea itzuliko da.

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

26. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

1.- Kontratuaren epea bukatzen denean edo suntsitzean iraungiko da kontratua.

2.- Epea bete delako kontratua iraungi dela ulertuko da, zehaztutako epea igaro denean.

3.- Kontratua suntsitzeko arrazoiak izango dira SPKLren 211. artikuluan oro har kontratu administratiboetarako aurreikusitakoak, eta Lege bereko 313. artikuluan bereziki zerbitzu kontratuetarako jasotakoak.

Horrez gain, kontratua suntsitzeko ondorengo kausa ezartzen da espresuki: esleipendunak administrazioarekin kontratatzeko betekizunak galtzea (kontratistaren gaitasuna eta kontratatzeko debeku arrazoia ez izatea), SPKLn ezartzen den arabera.

Era berean, kontratua suntsitzeko arrazoi izango da baldintza agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian jasotako kontratua gauzatzeko nahitaezko betebeharren bat ez betetzea edo baldintza bereziak ez betetzea.

Aldi baterako enpresa elkarteen kasuan, elkartekideetakoren bat SPKLren 211.1 artikuluko a) eta b) letretan jasotako balizkoan sartzen denean, Administrazioak ahalmena izango du aldi baterako elkartea osatzen duten beste enpresei kontratuko obligazioak betetzea eskatzeko edo kontratua suntsiaraztea erabakitzeko.

Hala ere, ez-betetzeengatiko zehapenak kontratuko prezioaren % 5aren multiploa direnean, kontratazio organoak kontratua suntsitzea edo, zehapen berriak ezarriz, kontratuak jarraitzea erabaki ahal izango du.

27. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Udalari honako eskumen hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratua betetzerakoan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta horren ondorioak zehaztea. Eskumen horiek SPKLren eta HAKLEOean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei jarraituz erabiliko dira.

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

OIARTZUNGO
UDALA

IV. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

28. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

1.- Baldintza agiri honen arabera egingo den kontratua zerbitzu kontratua da, SPKLren 17. artikuluak xedatutakoaren arabera. Administrazio izaera izango du, eta Administrazio Publikoen kontrataziorako dituzten printzipio komunen arabera arautuko da, eta betiere kontratazio publikoaren arloan Europako erkidegoen zuzenbideak zehaztutako printzipio komunen arabera. Halaber, kontratua erregulazio harmonizatuaren pean dago, SPKLren 22. artikuluaren arabera.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, honako hauek izango dira kontratua arautuko dutenak:

- Baldintza ekonomiko-administratiboen agiri hau eta honi atxikitako gainerako agiri teknikoek.
- Lizitazioa eta kontratua egiten diren bitartean, eta bi horiek garatzen diren bitartean indarrean dauden Toki Araubideko nahiz Administrazio Publikoetako Kontratuetako legezko eta arauzko xedapenetan jasotako kontratazio-arauak.
  Bereziki, honako arauak aplikatuko dira: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bateratua onesten duena; Sektore Publikoko Kontratuen azaroak 8ko 9/2017 Legea (SPKL); eta arauzko xedapen gisa 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen, urriaren 30eko, 30/2007 Legea partzialki garatzen duena, eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onesten duena, aurrekoekiko kontraesanean ez dagoen guztian indarrean dagoena.
- Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak.

2.- Zuzenbide pribatuko arauak zuzenbide osagarri gisa erabiliko dira, kontratuaren interpretazioak, ondorioek, betetzeak edo iraungitzeak eragin ditzaketen auziak ebazteko, eta auzi horiek aurreko paragrafoan aipatutako xedapenen bidez argitu ezin direnean. Edonola ere, zuzenbide pribatuko arauak aplikatzeko, kontuan hartu beharko dira administrazioaren eskumenak.

3.- Erabat teknikoak diren gaietan izan ezik, agiri honetako xedapen guztiak espedienteari lotutako gainerako aukerako baldintzen gainetik egongo dira.

4.- Agiri hau eta Baldintza Teknikoen Agiria euskaraz idatzia izan da eta gaztelaniara itzulia. Ondorioz, bi bertsioen artean desadostasunik badago, euskarazkoa gainetik egongo da.

29. ERREKURTSOEN ARAUBIDEA

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

1.- SPKLen 44. artikuluan arautzen den **kontratazio alorreko errekurtso berezia** aplikagarri izango zaie, aukerako izaeraz, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri aurretik, honakoei:

a) Lizitazio-iragarkiei, kontratazio hau arautzen duten dokumentuei eta baldintza agiriei.
b) Prozedura honetako izapidetze egintzei, betiere horiek zuzenean edo zeharka esleipenean erabakitzen badute, prozedura jarraitu ezina eragiten badute edo eskubide edo interes legitimoetan konpon ezinezko defentsa-gabezia edo kaltea eragiten badute.
c) Esleipen erabakiei.
d) SPKLen 204. eta 205. artikuluetan xedaturikoa ez betetzean oinarrituriko kontratu aldaketei, aldaketaren ondorioz esleipen berria egin behar zela ulertzeagatik.

2.- Errekurtso hori, hamabost egun balioduneko epean aurkeztu beharko da, lizitazio iragarkia edo errekurritutako egintza kontratugilearen profilean argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatuta. Aurrekoa gorabehera:

- Esleipen prozeduran hartutako izapide-egintzen aurka edo publizitaterik gabeko prozedura aplikatzearen ondoriozko egintza baten aurka jartzen denean, balizko arau-haustearen berri izan den hurrengo egunetik hasiko da zenbatzen.
- Kontratuaren esleipenaren aurka jartzen denean, SPKLen 15. Xedapen Gehigarriaren arabera jakinarazten den hurrengo egunetik hasiko da zenbatzen epea.

3.- Errekurtsoa jartzeko idatzia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak jasotako lekuetan aurkeztu ahal izango da. Era berean, kontratazio organoaren erregistroan edo Euskal Autonomi Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoarenean aurkeztu ahal izango da.

Aurreko paragrafoan berariaz adierazitakoak ez beste erregistroetan aurkeztutako idatziak berehala eta ahalik eta azkarren jakinarazi behar zaizkio Auzitegiari.

4.- Prozedura honetan emandako ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa bakarrik jarri ahal izango da, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

5.- Interesatuek gainerako tramite-egintzen aurka alegatu ahal izango dute, prozedurari amaiera emango dion ebazpenean kontuan har dadin.

6.-. Klausula honetako lehen atalean jaso gabeko kontratazio honi buruzko gainerako ebazpenei urriaren 1eko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean arautzen den **administrazioarekiko birjarpen errekurtsoa** jarri ahal izango zaie, aukerako izaeraz, edo, bestela, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak arautzen duen **administrazioarekiko auzi errekurtsoaren** xede izan ahal dira.

30. KONTRATAZIO PROZEDURAKO KOMUNIKABIDEAK

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

OIARTZUNGO
UDALA

SPKLen 140.1.4. artikuluan eta 15. xedapen gehigarrian xedaturikoaren arabera, kontratazio prozeduran egin behar diren komunikazioak eta jakinarazpenak baliabide elektronikoen bidez egingo dira.

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak Eusko Jaurlaritzako lizitazio elektronikoko plataformaren bidez egingo dira.

Jakinarazpen eta komunikazioak ondorio horietarako ezarri den pertsonari zuzenduko zaizkio.

Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, ohar bat bidaliko zaio enpresari, horrek zehaztutako helbide elektronikora.

Bitarteko elektroniko bidezko jakinarazpena errefusatua izan dela ulertuko da, jakinarazpena eskuratzeko moduan jarri eta 10 egun natural igaro direnean horren edukira sartu gabe; eta jakinarazpena Eusko Jaurlaritzako lizitazio elektronikoko plataforman jartzen denean, jakinarazpen betekizuna epe barruan bete dela ulertuko da.

Oiartzunen, sinaduraren egunean

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

I. ERANSKINA
GIZA ESKUBIDEEN ADIERAZPEN UNIBERTSALA ERRESPETATZEA

“.....jaunak/andreak, NA..... zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk. ..... (fax zk.: .....; posta elektronikoa: ….....), gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean (edo.....-(r)en izenean, IFK/NA…….....…, hiria ....., helbidea:....., etab.), **OIARTZUNGO UDALERRIKO BERDEGUNE, PARKE, LORATEGI ETA ZUHAIZTIEN GARBITASUNA, ZAINKETA ETA MANTENTZE-ZERBITZUA**ren kontratazioa arautuko duten baldintza agiriak eta gainerako baldintzak ezagututa,

BERE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DU:

Enpresak ez duela Nazio Batuen Erakundearen 183. batzar orokorrak onartu eta aldarrikatutako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean ezarritakoa urratzen duen eragiketarik egin edo egingo, ez eta horiek arautzen dituzten printzipio orokorrak ere: Giza Eskubideak Babesteko eta Bermatzeko Sistema Unibertsala, Giza Eskubideak Babesteko eta Bermatzeko Eskualde Sistemak eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa.

.....en, 2025eko .....an

Sinadura. ESKAINTZAILEA.”

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

II. ERANSKINA
GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA

"..... jaunak/andreak, NA..... zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk. ..... (fax zk.: .....; posta elektronikoa: …....), gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean (edo.....-(r)en izenean, IFK/NA……......, hiria ....., helbidea:....., etab.), **OIARTZUNGO UDALERRIKO BERDEGUNE, PARKE, LORATEGI ETA ZUHAIZTIEN GARBITASUNA, ZAINKETA ETA MANTENTZE-ZERBITZUA**ren kontratazioa arautuko duten baldintza agiriak eta gainerako baldintzak ezagututa,

BERE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DU:

I.- Aipatutako kontratua gauzatzeko, karatularen 11.3 atalean eta Baldintza Teknikoen Agiriaren 18. klausulan zehazten denarekin bat, beharrezko langile guztiak jarriko dituela, eta gutxienez kontratura honako giza baliabideak atxikitzeko konpromisoa hartzen duela:

- Zaintza- eta koordinazio-lanak egiteko:
  - Zerbitzuaren arduraduna
- Zerbitzuen prestaziorako behar diren zuzeneko langileak, gutxienez eta lanaldi osoan:
  - Zerbitzuaren enkargatua
  - Lorezain ofiziala
  - 3 lorezain laguntzaile
- Gainera, kontratatutako zerbitzuen funtzionamendu egokirako behar diren beste langileak.

II.- Langile horiek aseguru egokia izango dutela.

III.- Hizkuntza gaitasunari dagokionean, zerbitzuaren arduradunak eta zerbitzuaren enkargatuak Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 gaitasun maila edukiko dutela.

IV.- Hauek direla zerbitzuaren arduradun izateko proposatzen den edo diren pertsonak:

- ……
- ……

V.- Zerbitzuaren arduradunak honako baldintzak beteko dituela edo dituztela:

- Kontratazio honetarako eskatzen diren hizkuntza baldintzak bete beharko ditu.
- Gutxienez 2 urteko esperientzia egiaztatuko du lizitazio hau baino lehenagoko bost urteetan zehar, kontratuaren xede diren lorezaintza lanen antzekoak egiten.
- Enpresa esleipendunak emandako eskumena izatea erabakiak hartzeko, kontratuko lanak betetzeko behar diren giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketan.

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

Gainera, enpresa esleipendunak emandako eskumena izatea gorabehera teknikoak eta administratiboak ebazteko, egunero eskaini beharreko zerbitzuen kudeaketan.

- Udalak deitutako lan-bilera guztietara joateko moduan egotea.
- Erraz aurkitzeko moduan egotea beti, enpresak aukeratutako komunikazio-sistemaren bidez.
- Kontratatutako zerbitzuak egunez egun betetzeko, edozein lan zehatz kontrolatzea, erregistratzea, agintzea, koordinatzea, zuzentzea eta planifikatzea.
- Langileen lana kontrolatzea eta ebaluatzea.
- Lanak kalean bertatik bertara ikuskatzea, eta, beharrezkoa izanez gero, berehala hartzea gaizki eginikoak zuzentzeko neurriak.
- Lantaldeak eta zerbitzuak antolatzea, eta, beharrezkoa izanez gero, etengabe berrantolatzea.
- Zerbitzuak berrantolatzea gorabeherarik izanez gero (matxurak, istripuak, elurteak…).
- Udalari gorabehera guztien berri ematea unean bertan.
- Kontratuaren xede diren lanak koordinatzea udalarekin, dagozkion hartu-eman edo gestioen bitartez.
- Oro har, zerbitzuaren funtzionamendu egokirako eginkizun guztiak betetzea.

VI.- Kontratistak bermatuko duela, sor daitezkeen ordezkapenetan ere, langile berriek titularren baldintzak beteko dituztela. Hasierako pertsonalean edozein aldaketa egiteko, Udalak oniritzia eman behar du.

VII.- Aipatutako kontratua gauzatzeko, baldintza agirietan ezartzen diren zerbitzuak gauzatu ahal izateko baliabide material (ibilgailuak, makineria, erremintak, lanabesak, etab.), nahiko atxikitzeko konpromisoa hartzen duela.

.....en, 2025eko .....an

Sinadura. ESKAINTZAILEA.”

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

III. ERANSKINA
PROPOSAMEN EREDUA

“.....jaunak/andreak, NA..... zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk. ..... (fax zk.: .....; posta elektronikoa: ….....), gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean (edo.....-(r)en izenean, IFK/NA…….....…, hiria ....., helbidea:....., etab.), **OIARTZUNGO UDALERRIKO BERDEGUNE, PARKE, LORATEGI ETA ZUHAIZTIEN GARBITASUNA, ZAINKETA ETA MANTENTZE-ZERBITZUA**ren kontratazioa arautuko duten baldintza agiriak eta gainerako baldintzak ezagututa,

ADIERAZTEN DU:

I.- Ezagutzen dituela Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiria, Baldintza Teknikoen Agiria eta kontratu hau arautuko duen gainerako dokumentazioa, eta berariaz bere osotasunean onartzen dituela inolako salbuespenik gabe beteko dituelarik.

II.- Ordezkatzen duen enpresak kontratu hau burutzeko indarrean dagoen araudiak eskatutako betebehar eta baldintza guztiak betetzen dituela.

III.- Esleipenduna gertatuz gero, aipatutako lanak onartutako baldintza agirietan zehazten diren baldintzen arabera eta espedientean zehaztutako gainerako aukerako baldintzen arabera beteko dituela beti.

IV.- Lanaren, zergaren eta Gizarte Segurantzaren alorretan legeek edo araudiek xedatzen dutena betetzera behartzen dela.

V.- Berariaz adierazten du, eskaintza egiteko garaian, kontuan hartu dituela enplegua babesteko alorrean, lan baldintzen eta laneko arriskuak prebenitzeko alorrean indarrean dauden xedapenetatik sortutako betebeharrak, bereziki Gipuzkoan aplikatzekoak diren jarduera-sektore haietako Hitzarmen Kolektiboak eta ingurumena babestekoak direnak.

Ondorio horrekin, adierazten du, esleipendun izanez gero, kontratuaren xede den jarduera burutuko duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa ondorengoa dela:…….

Era berean, kontratua esleitu ondoren, aipatu langile horiei aplikatuko zaizkien lan baldintzen inguruan eskatuko zaion informazio oro kontratazio organoari ematera behartzen dela.

VI.- Esandako guztiaren arabera, konpromisoa hartzen duela **Oiartzungo udalerriko berdegune, parke, lorategi eta zuhaiztien garbitasuna, zainketa eta mantentze-zerbitzua emateko, urteko** …… **euroko prezioan (BEZa barne)**, honela banakatuta:

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

- Prezioa: …….euro/urteko.
- BEZ aplikagarria (%.....): …… euro/urteko.

Prezio horretan kontzeptu guztiak barruan daudela ulertu behar da, eta hor gastu guztiak, zergak, arlo fiskaleko edozein tasa eta ordainketak sartzen dira, baita kontratistaren etekin industriala ere.

VII.- Kontratuan aurreikusi ez diren beharretarako edo eguraldi gorabehera batzuengatik sor daitezkeen lan bereziei erantzuteko **urtero Udalaren eskura …..…... orduko doako orduen poltsa** jarriko duela.

VIII.- Enpresak, kontratuak irauten duen bitartean, **kontratura atxikitako langileei urtero gutxienez 5 orduko formakuntza emango diela, genero berdintasunaren inguruan**. Bereziki, gizonak, maskulinitateak eta berdintasunaren inguruan.

☐ Bai
☐ Ez

.....en, 2025eko .....an

Sinadura. ESKAINTZAILEA.”

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

IV. ERANSKINA
SUBROGATU BEHARREKO LANGILEEN ZERRENDA

Langilea	Kontratu mota	Kategoria Profesionala	Eguna	Antzinakoa	% Dedikazioa	Urteko soldata gordina	Antzinako hilabetea	Garraio Plus hilabetea	Kontserbazio hilabetea	Hilabete gehigarria	Ordainketa Lotura Urtea	Urteko Enpresaren Kostua	Hitzarmen Kolektiboaren Erreferentzia
1	Mugagabea	Arduraduna	LJ: 07:30etik 15:55era eta ostirala: 07:30etik 14:00etara	2007/3/5	100,00%	27.022,64	219,94	115,69	34,71	50,00	450,00	36.102,51	Estatuko Lorategi Hitzarmena
2	Mugagabea	Lorazainaren laguntzailea.	LJ: 07:30etik 15:55era eta ostirala: 07:30etik 14:00etara	2005/6/1	100,00%	23.765,80	219,94	115,69	34,71	-	450,00	31.732,80	Estatuko Lorategi Hitzarmena
3	Mugagabea	Lorazaina	LJ: 07:30etik 15:55era eta ostirala: 07:30etik 14:00etara	2005/7/21	100,00%	24.534,32	219,94	115,69	34,71	-	450,00	32.763,93	Estatuko Lorategi Hitzarmena
4	Mugagabea	Arduraduna	LJ: 07:30etik 15:55era eta ostirala: 07:30etik 14:00etara	2006/9/13	100,00%	27.022,64	219,94	115,69	34,71	50,00	450,00	36.102,51	Estatuko Lorategi Hitzarmena
5	Mugagabea	Lorazainaren laguntzailea.	LJ: 07:30etik 15:55era eta ostirala: 07:30etik 14:00etara	2025/3/10	100,00%	20.466,70	-	115,69	34,71	-	450,00	27.306,40	Estatuko Lorategi Hitzarmena
6	Mugagabea	Administrazio Burua	Astelehena: 8:15etatik 12:15etara	2019/2/1	20,00%	3.268,51	9,47	14,46	4,34	-	56,25	4.366,13	Estatuko Lorategi Hitzarmena

Langile guztiei aplikatzen zaien lan hitzarmena Estatuko Lorezaintzaren Sektoreko Hitzarmen Kolektiboa (2018ko otsailaren 9ko BOE, 36 zenbakia) (99002995011981 kodea) da. Hitzarmen berria sinatzeko lanean ari dira.

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

V. ERANSKINA
LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA

Kontratazio prozeduretako izapideetarako (dokumentuak bidali, kontratuak sinatu, jakinarazpenak jaso…) lizitazio elektronikorako sistema erabiltzeko baldintzak.

1. Baldintza administratiboak:
   - Ziurtagiri digital bat izatea, izapide elektronikoetarako baimendutako erabilera duena. Gaur egun, honako hauek dira ziurtagiri elektroniko horiek:
     - Izenpe (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria).
     - FMNT (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria).
     - Nortasun agiri nazional elektronikoa
     - Camerfirma (entitatea, herritarra).
   - Egoera hauetako batean egotea:
     - Alta emanda egotea eta indarrean dagoen ziurtagiria izatea Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan
     - Alta emanda egotea lizitazio elektronikorako aldi baterako gaikuntzako sisteman.
     - Bi operadore ekonomiko edo gehiago elkarrekin aurkezten badira, formalki aldi baterako enpresa elkarte gisa (ABEE) eratzeko konpromisoa hartuta, ABEEren konpromisoa aldi baterako gaikuntzako sisteman erregistratuta egon beharko da.

2. Baldintza Teknikoak:
   Elektronikoki lizitatzeko baldintza teknikoei buruzko informazioa lotura honetan aurkitu daiteke:
   http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-content/eu/contenidos/informacion/lic_elec_requisitos_tecnicos/es_def/index.shtml

3. Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko zerbitzua: 945 016298 telefonoan.

   Zerbitzu hori ekipoak konfiguratzeko eta bidalketak egiteko eskainiko da. Gomendagarria da, batetik ordenagailuetan konfigurazioak egin aurretik lehenbailehen beraiekin hitz egitea eta bestetik, espedienteko eskaintzak aurkezteko epea bukatu aurretik froga bat egitea.

   Lizitazio elektronikoko sistemara sartzeko modua: Sistema erabili ahal izateko, atari honetan sartu beharko da: www.contratacion.euskadi.eus

II.- JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOAK

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak Eusko Jaurlaritzako lizitazio elektronikoko plataformaren bidez egingo dira.

ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451

Jakinarazpen eta komunikazioak ondorio horietarako ezarri den pertsonari zuzenduko zaizkio.

Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, ohar bat bidaliko zaio enpresari, horrek zehaztutako helbide elektronikora.

Nork Sinatua / Firmado por: AROIA ALTUNA IBARGUREN - 44572433C
2025/12/03 08:00:51

EKS | CSV: ESKUd2e97d73-7a05-47af-8fc5-6d5b9b85f451
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310